



ZAINZAILEEN GENEALOGIA

Nork eta nola zaindu gaitu eta zaintzen gaitu?



Mujeres con Voz eta **Sortzen Aholkularitza**

Edukia

1.	METODOLOGIA	7
2.	ZAINZAREN EZAUGARRIAK	8
2.1.	Muga argirik gabeko lana negoziatzea.....	9
2.2.	... ia ezinezkoa emakume langile etorkinentzat.....	10
2.3.	Zaintza umiliazio bihurtzen denean	11
2.4.	Lotura pertsonala zaintza lanean	13
2.5.	Zaintzaileen gizarte eskala	15
2.6.	Etorkizunik gabeko lana	17
3.	Etxe-langileak: kanpotik datozenak	19
3.1.	Extremaduratik, Andaluziatik, Galiziatik... lan gogorra egitera	19
3.2.	Filipinetatik... etxe aberatsetara	22
3.3.	Latinoamerikatik... gaizki uztartzen den etxeetara	26
3.4.	Errumaniatik... edozein etxetara bolada baterako.....	30
3.5.	Afrikatik... inora ez	33
4.	ONDORIOAK.....	37
1.	ERANSKINA: ETXEKO LANARI BURUZKO LEGEDIAREN EBOLUZIOA.....	42
	ERREFERENTZIAK.....	46
	BIBLIOGRAFIA.....	46

Genealogia honek zor handiak egin ditu pertsonekin eta erakundeekin, horien babesik gabe ideia hau ez baitzen gauzatuko.

Hasteko, Posada de los Abrazos/Besarkatuz-ek emandakoa aipatu nahi dugu; beti bezala, proiektu hau babesteko prest agertu ziren eta eurekin lana egiten duten emakumeak ere parte hartzera animatu zituzten.

Gogoan ditugu euren lekukotza eman eta publikoaren eta pribatuaren artean banatutako mundu hau ezagutzeko aukera eman ziguten emakumeak ere, etxeko lanetan eta, batez ere, zaintza lanetan ibili diren emakumeak. Eskerrik asko.

Anonimatuan jarraitu nahi dutenez euren izenik eman ezin dugun arren, izan duten ausardia aintzat hartzekoa da. Lan honek emakume horien ahotsak entzunarazi nahi ditu, behingoz kontzientziatu gaitezen zaintzaren garrantziaz eta zaintza lanak egiten dituzten pertsonen garrantziaz.

Jarraian aurkeztuko dugun errealitatea begien bistan jartzea oso garrantzitsua zela erabaki zuen Emakundek eta horri esker egin da proiektu hau, Emakundek horren aldeko apustua egin zuelako.

Fondo de Mujeres Calala eta Getxoko Udaleko Euskara alorrari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, lan hau euskaratzeagatik.

Genealogia hau hausnarketarako materiala da eta gizarte solidarioagoa eraiki nahi duten pertsona guztiei, emakumeei nahiz gizonei, zuzenduta dago. Pertsona hauek ulertzen dute zaintzaren balioa oso handia dela, bizitzaren beraren balioa baita. Hau ulertzen ez duen gizartea behin eta berriro bidegabekeriak errepikatuzera kondenatuta dago.

Material hau hedatzeko egin da eta honen bidez sentibilizatu, eztabaidatu eta errealitate batez ohartu daiteke. Emakume etorkinak babesteko proiektu zabalago baten zatia da, lehengo eta oraingo emakume etorkinak babestu nahi dira; izan ere, migratzeak ez du esan nahi oinarritzko eskubideak murriztu behar direnik eta horien zaintzari esker, bizitzari eusten diote.

Sortzen eta Mujeres con Voz

SARRERA

Emakumeak ikusezinak izan gara; ekonomiari, zientziari, bizitzari guk egindako ekarpenak ere ikusezinak izan dira maskulinoan idatzitako historian, eta historia hori izan da egiazko historia bakarra. 70eko hamarkadako mugimendu feministek mundu osoan errebindikatu zituzten emakumeen eskubideak, eta emakumeek zientziari, arteari, politikari, bizitzari... egindako ekarpenak ahanzturatik ateratzen ere hasi ziren.

Sorginak, emaginak, kondenatuak, eroak, espetxeratuak, erreak, euren aurkikuntzak gizonek sinatu zituzten emakume zientzialariak, idazle baztertuak... emakume horiek guztiek euren garaietako patroiz itogarriak gainditu zituzten eta presentzia lortzen hasi ziren, euren ahotsak gero eta garrantzitsuagoak dira egin zutena ikasteko eta emakume bakoitza behin eta berriro zerotik hasten dela ez sentitzeko.

Gure aurreko emakumeen iraultzak eta pentsamendua aurkitu, berraurkitu, asmatu, geureganatu... emakumeok horietarako guztietarako prestatu beharra daukagu, gaur egun oraindik ere bazterretik jardun behar izaten baikara, ofiziala ez den ikaskuntzatik. Eta subjektibotasunetik ere aritu behar izaten gara; subjektibotasun horren ondorioz emakumeok elkarrekin zerikusirik ez dugula sinestarazten digute, izan ere, zer ekarpen egiten du ikusezinak, ukatuak, ahaztutakoak?

Luce Irigarayk (1985) «genealogia femeninoak» kontzeptua ekarri zuen mugimendu feministetara; kontzeptu hori bere pentsamenduaren eta proposamenen zati integrala da, baita desberdintasuneko feminismoaren beste egile adierazkorrenak ere (Hernández Piñero, 2006). Irigarayren pentsamendu osoarekin bat ez gatozen arren, berarekin bat gatoz gure amei, amonei, birramonei, ukatu zitzaizen historiari begiratzeko beharraz; hau da, beste belaunaldietako emakumei begiratu beharra dago, transgresiotik edo patriarkatuak emandako rola onartzearen ondorioz gure subjektibotasuna eraiki baitute, emakume bezala gu ikusteko eta ulertzeko dugun moduz.

Eskuartean dugun genealogia honen kasuan, emakume jakin batzuk berreskuratu nahi izan ditugu ikusezintasun horretatik: zaintzen dutenak, euren lanari esker eguneroko bizitza gorabeherarik gabe edo gorabehera handirik gabe garatu ahal izaten baita. Eta nork zaintzen dute orain? Nork zaindu izan du lehen? Nola garatu

da zainketa hori? Zer testuingurutan eta zer esanahi zuen zaintzaileentzat? Galdera horiek eta beste batzuk egin genizkien geure buruei lan hau hasi genuenean. Hasierako ideia batzuk bagenituen, jakina, batez ere gaur egun zaintza lana emakume etorkinek egiten dutela dakigu eta aitortu ere egin da:

“Emakume etorkinak, hein handi batean, gaizkien ordaindutako lanak egitera etorri dira, laneko txokorik ikustezinenak eta gizartean prestigiorik txikiena dutenak betetzera: etxeko lanak eta zaintzak...”

Familiako eta laneko bizitza uztartzeko emakumeek eta gizonek duten gatazka ez da konpondu gure gizartean.

Hori dela eta, bertako emakumeek bakarrik “jasan” behar izaten dute erreprodukzio lanaren zati handi bat eta gizonek berengain hartzen ez duten gehiegizko erantzukizuna eta lana «konpontzen» dute, emakumeen migrazioa zaintzako sistema formalaren eta informalaren bizkarrezur bihurtuta” (Inmigrazioarako itun soziala Euskadin, 2012)

Horrela, bada, zaintzaileen genealogia egitean azken urteetako migrazioen historia ere aztertu genuen eta ikusi genuenez, zaintzen dutenak «kanpokoak» dira gehienetan, beste emakume batzuk, desberdinak, beste jatorri batekoak, beste hizkera batekoak, beste kolore batekoak, beste ohitura batzuekikoak; izan ere, dirudienez emakume batzuek “bestetasunetik” baino ezin dituzte hartu beste emakume batzuk, eurek etxetik irteteko edo etxean geratu eta zaintza lanak ez diren beste lan batzuk egiteko.

Testuan enplegatzaile esatean emakumeez arituko gara beti. Badira enplegatzaile gizonezkoak ere, ez dugu esango horrelakorik ez denik eta zaintzaile emakumezko batzuek arazo jakinak dituzte gainera. Hala ere, enplegatzaile esatean emakumeez arituko gara beti, zaintza lanaren kudeaketa emakumeen artean egiten dela azpimarratu nahi baita. Emakumeak dira enplegatzen dutenak eta enplegatzen direnak.

Emakumeen arteko erlazio honek, eta gizarteari komeni zaio erlazioak horrela jarraitzea, nahasmena dakar zaintza laneko mugak eta baldintzak ezartzerakoan. Dirudienez, «emakumetik emakumera» ez dago diruaz, ordutegiez, aparteko ordainsariez... hitz egin beharrik, «gauzak» egin eta konponduko dira.

Erlazio honetan emakumeen artean ulertutzat emandakoek garrantzi erreala eta sinbolikoa dute zaintza lanetan; hori nabarmendu nahi genuen.

Jatorrien bila ibiltzea zoragarria izan da, baina oraindik bada zereginik. Ez dugu uste «genealogia» egin dugunik, baina seguru gaude zaindu izan duten eta zaintzen duten emakumeen ahotsa berreskuratu dugula, zaintzaileen historiari geure ekarpena egin diogula eta, bereziki, zaintzaile etorkinen historiari egin diogula ekarpena, zaintzearen esanahi pertsonalean eta sozialean sakondu dugu.

IKERKETA TALDEA

Luciana Davies, Norma Vázquez eta Miriam Herbón

1. METODOLOGIA

Etxe Langileen Elkarteko aholkularitzak emandako datuen arabera, 2010eko urritik 2011ko azarora 241 izan ziren aholku eske; "Euskadiko etxe-langileen %87 atzerritarrak dira, %46 lana egiten duen etxean bizi da. Etxean bertan bizi ziren guztiak atzerritarrak ziren eta jarduera nagusia mendekotasuna zuten pertsonak **zaintzea zen**" (Carrizo, 2011).

Beraz, zaintzaileen genealogia honetan ikusi beharra dago oraingo etxeko langileek garai batean horrelako lanak egin zituztenen lan-baldintzez zenbat aprobeztatu diren. Horregatik erabaki genuen 60ko hamarkadako zaintzaile eta etxe-langileen esperientzia ezagutzea, horietako batzuk gaur egun ere zeregin horretan jarraitzen duten arren.

Genealogia hau egiteko, metodologia kualitatiboa erabili genuen, horren ondorioz, informatzaileak bihurtzen dira informazio bilaketaren ardatz eta horien esanak interesatzen zaigun fenomenoak ulertzeko iturri. Hori dela eta, planteatzen dugun diseinua espiralean garatzen da, hau da, bildutako informazioa zaintzaileen genealogia hobeto ulertzeko elementu bihurtzen da.

Lan hau egiten jarrai zitekeen arren, etapa honetan 25 elkarrizketa egin dizkiegu 26 eta 64 urte arteko emakumeei, batzuk bertakoak dira, besteak migratzaileak, baina denak gutxienez azkeneko 5 urtean zaintza lanetan ibili dira Euskadin edo oraindik ere horretan dabilta.

Elkarrizketak taldean egin ziren, jatorriaren arabera, eta banako batzuk ere egin ziren; talde bakoitzeko ordezkariak egin zitzaizkien banako elkarrizketa horiek. Erabilitako formatua elkarrizketa erdi-egituratua izan zen, partaide bakoitzak bere migrazio proiektuaren inguruan izandako esperientziak aztertu ziren, zaintzaren esperientzia, laneko baldintzak eta zaintzeko lanaren esanahia.

Lan hau planteatu zenean zaintza lanen esparrura mugatu ginen arren, elkarrizketetan eta taldeetan beste intereseko gai batzuk ere agertu ziren, baina ez genituen merezi zuten sakontasunarekin aztertu eta beste lan batzuen xede izan beharko dute zalantzarik gabe.

2. ZAINZAREN EZAUGARRIAK

Zaintza lanetan hainbat zeregin sartzen dira zaintzen denaren arabera, hau da, pertsona baten ongizatea mantentzea izaten da kontua, baina xede hori lortzeko jarduerak aldatu egiten dira jaioberria, haurra, mendekotasun handiegirik gabeko adinekoa, mendekotasun handiekiko pertsona gaixo bat... zaintzearen arabera. Ongizatea mantentzea esatean, zaintzaileen ongizateaz ere ari gara, baina baita bizi den inguruaren ongizateaz ere, hau da, ongizate hori mantentzeko etxea garbitu behar da edo etxeko beste lan batzuk egin, hala nola, sukaldeko lanak, arropa lisatu eta, gainera, erosketen kudeaketaz arduratu.

Horrela, bada, zaintzaileak egin beharreko lana mugatzeko lehenengo zailtasuna honakoa da: non amaitzen da zaintza lana? Gaia aztertzen dutenek zaintza lanaren mugak ezagutu nahi dituzten arren, lanean ari direnek ere ezagutu nahi dituzte; zer lan ordainduko zaizkie? Nola negoziatuko dituzte ordutegiak?

Muga hauek ezartzeko zailtasuna eta zaintza lanak egiten dituztenen sexua elkarri lotuta daude, hau da, etxeko andreak egin izan dituzte beti lan hauek eta hauek «dena» egin izan dute; hau da, lan hori gainbegiratzen edo egiten zuten emakumeen eskakizunen arabera izan da.

Etxeko andreak «dena» egin ezin zuenean, familiako beste emakume batzuegana joaten zen laguntza eske. Estatuak azpiegitura gutxi eman ditu zaintzarako, azken hamarkadetan mendekotasun handiekiko pertsonen zati bateko zaintza eta adin txikikoena estali dira batzuetan. Kanpoko laguntza gehien behar denean, hau da, haur txiki bat dagoenean edo adineko batek zaintza bereziak behar dituztenean, izaten dute familiako emakumeek erantzukizun handiena.

Gaur egun oraindik ere zaintza lana eremu pribatukoa da, eta familien zeregina da, hau da, emakumeena. Beraz, zaintza beharrak konpontzerakoan zaintzeko lan mugagabea beregain hartuko duen beste emakume baten bila hasten dira, ahal bada diru gutxiren truke egingo du lana eta ez da kualifikaziorik eskatuko, kualifikazio horiek generoaren berezko ezaugarriak direla uste baita.

Gaur egun zaintza lanetarako eskariak gora egin du eta bertako biztanleriaren eskaintzak behera, batez ere lanak egingo dituen etxean bertan biziko direnen eskaintzak egin du behera eta horrek sortu duen laneko gunea emakume etorkinek

betetzen dute. Are gehiago, gune horiek daudelako etortzen dira emakume horiek Euskadira.

2.1. Muga argirik gabeko lana negoziatzea...

Azaroaren 14ko *1620/2011 Errege Dekretuaren 1.4 artikulua* hau esaten du "Lan harreman berezi honen xede dira familiaren etxeko zerbitzuak edo jarduerak, etxeko lan mota oro sar daiteke, baita etxea bere osotasunean edo zati batean zuzentzea edo zaintzea ere, familiako edo etxeko pertsonen zaintza edo arreta eta etxeko lanetan egiten diren beste lanak, hala nola, umeak zaindu, lorategia zaindu, ibilgailuak gidatu eta antzekoak".

Ikus dezakegunez, zaintza lana arautzen duen legediak lan horren definizio zabala du, etxeko lanetan sartzen da etxearen barruan gertatzen den oro, inolako bereizketarik gabe, beraz, laneko harreman bat ezartzean, ohikoa da zereginak argitzerakoan anbiguotasun hori uztea, normalean kontratatzailearen mesederako izaten baita. Lana egingo duenak ez du argi izaten zer egin behar duen eta zer ez den sartzen bere funtzioetan.

Lan hori behar izaten dutenez, zaintzeko enplegatzen diren emakumeak baldintza txarretan egoten dira negoziatzeko eta gutxik negoziatzen dute, horrek defentsarik gabe uzten ditu, ez baitute mugak jartzerik lortzen eta zeregin batzuk bere zerbitzuaren barruan sartu ez arren aurrez, enplegua galtzeko beldur izaten dira eta gehienetan isilik geratzen dira; horren ondorioz, euren zereginak gehituz joaten dira denborak aurrera egin ahala.

"Bada, nik, hau da... agintzen zidatena. Non dago muga? Inoiz ez dut jakin. Garbitu egin behar izaten zen. Etxe batean txakurra zuten; txakurrak oka egin zuen eta dena kendu behar izan nuen, izara, txakurraren oka guztia, garbitzailea nintzenez... Ez dakizu muga non dagoen, zer egin dezakezun eta zer ez" (EL, bertakoa).*

"Niri ostegun eta igande arratsaldeak eman zizkidaten libre. Batzuetan nire nagusiekin haserretu egiten nintzen, ostegunetan jende asko gonbidatzen baitzuten

*Lekukotasunak EL (Etxeko Langilea) eta Z (Zaintzailea) bezala identifikatuko ditugu informatzailearen nazionalitateaz jarraituta. Nahiz eta bereizketa hau egitea zaila izan, zaintzara soilik dedikatzen diren emakumeak eta batez ere etxeko lanak eta baita zenbait zaintza lan egiten dituztenen artean bereizketa egiteko erabili izan dugu.

bazkaltzera eta nola irtengo nintzen? Oso berandu irteten nintzen eta igandeetan gauza bera, gurasoak gonbidatzen baitzituzten. Ni oso berandu joan nintekeen, baina 23:00etan etxean egon behar nuen. Hori ez da egun libre..." (EL, filipinarra)

"Haur bat zaintzeko kontratatu ninduten, baina azkenean hiru haur zaintzen nituen eta etxeko lan guztiak egin ere bai. Baztertuta egoteaz nekatu egin nintzen; etorkina nintzenez, nahi zutenean ordaintzen zidaten eta aldi bakoitzean soldata desberdina zen..." (Z, Erdialdeko Amerika).

Laneko baldintzak pribatuan hitzartzen dira emakumearen eta kontratatzen duenaren edo dutenen artean eta egoera hau txarra izaten da emakumearentzat, izan ere, "enplegatzaileak enplegatutakoaren lanaren produktua baino zerbait gehiago lortzen du, pertsona bere osotasunean «erosten» du, batez ere, etxean bertan bizi direnen kasuan" (Anderson, 2006).

Aurrez hitzartutako mugarik ez dagoenez, enplegatzaileek hamaika gehiegikeria egin dezakete eta gehiegikeriok areagotu egin dira krisi garaian. Zenbateko bat hitzartzen da zerbitzu baten truke, baina gero askoz zerbitzu gehiago eskatu ahal izango dira, hasieran ezarritakoa gainditu arren. Beraz, laneko baldintzak kontratatzailearen borondate onaren mende egongo dira, ia erabat. Horrela, bada, zaintzailearen egoera are prekarioago bihurtzen da, bere zaurgarritasuna hazi egiten da.

2.2. ... ia ezinezkoa emakume langile etorkinentzat

Mugak ezartzeko zailtasun hauek modu batera edo bestera konpontzen dira, langilearen nazionalitatearen arabera. Bertako langileak enplegatzailearen gizarte mailakoak izaten ez diren arren, ez dute gauza jasangaitzik eta umiliagarririk jasan behar izaten.

"Nire bi ahizpek hona emigratu zuten, biak lana egiten zuten etxean bertan bizi ziren eta txoratuta egon ziren, zoragarri. Are gehiago, etxeoandreetako bat Extremadurara joan zen ezkontzako amabitxi izatera, hau da, zoragarri biak, zoragarri egon ziren. Aspaldi izan zen hori, duela urte asko, asko" (EL, bertakoa).

"Zaindu ditudan haurretako batzuentzat ni euren amona naiz..." (Z, bertakoa).

Baina etxeko langile edo zaintzaile kanpotarrek ezin dute horrelakorik esan, bertako langileek ere aitortzen dute hori.

"Nik egunez lanak egiten nituen etxe batean eta gaez adineko emakume bat zaintzen nuen, nik lana utzi nuenean, paraguaiar emakume bat hartu zuten egunean 24 orduz lana egiteko, astean atsedenaldi bakarra zuen, mezatara joateko. Hori gehiegikeria hutsa da, niri ez zidaten horrelakorik egiten..." (Z, bertakoa).

Beste herrialde bateko emakume bat kontratatzen denean, klase arteko aldea egoteaz gain, arraza eta etnia arloko bereizketak ere garrantzia hartzen du, baztertzeko elementu bihurtzen da eta zaintzaile etorkina bere pareko bertako langilea baino gune zaugarriagoan egoten da.

Zaintzaile berri hauekin kode aldaketak egon dira, baita lanekoak ere, izan ere, lana baino gehiago «mesede bat» egiten diete enplegatzaileek; horren ondorioz, laneko harremana baino gehiago gurasokeria bat sortzen da eta enplegatutako emakumeek jasotzen duten mezua da, lan horri esker hobetzeko aukera dutela, beraz, ezin dira baldintzak negoziatu.

"Nire lehenengo lanean ez nuen ez ordainsari erdirik, ez legezko ordainsaririk... 12 orduko lanaren truke 300 euro irabazten nituen, gainera, etxean umiliatu egiten ninduten eta iseka egin ere bai... baina beharra gauza horien guztien aurretik zegoen" (EL, boliviarra).

"Goizeko seietan jaikitzen ginen eta gaueko ordu bata arte esna egoten ginen. Gure atsedena arropa lisatzea izaten zen" (EL, filipinarra).

2.3. Zaintza umiliazio bihurtzen denean

Emakume etorkinek, oro har, (ondorengo ataletan ikusiko dugu talde bakoitzak zer baldintzatan egiten duen lana) mendeko jarreran egiten dute lana eta zaintzak; mendekotasun hori ez da soilik alor ekonomikoan izaten, baizik eta beste alorretan ere bai (hizkuntza, arraza, kultura); hori dela eta, horiek guztiek egiten duten lanaren balorazioa txikitu egiten da eta, ondorioz, langilea bera eta jasotzen duen ordainsaria ere bai.

Etxeko langile eta zaintzaile etorkinen historiak ezagutzen hasten garenean, diskurtsorik gehienetan umiliazioak eta bertako langileek baino lan baldintza kaskarragoak agertzen dira. Euren lanaren eta langile izaeraren balorazioan, kontratazioan eta baldintzak ezartzean lana bera ez ezik, euren itxura fisikoa, hitz egiteko eta janzteko modua, jatorrizko herrialdea... ere sartzen dira.

"Nik buruko zapirik gabe egiten dut lana, badakidalako ez dutela nik horrelakorik erabiltzea nahi eta lana behar dut..." (EL, afrikarra)

"Lan batzuetan "puta" eta "beltza" esan didate etengabe eta "zu lanera beste ezertara ez zatoz" bezalakoak entzun behar izan ditut" (EL, afrikarra)

"Auzotarren erkidego batean lana egiten nuenean, emakume batek nik garbitutakoa berriro garbitzen zuen..." (EL, afrikarra)

Eta tratu umiliagarri hori berehala ikasten dute etxeko txikienek ere.

"... nik zaintzen nuen neskatotako batek sei urte besterik ez zituen, baina esaten zidan: nik nahi dudana egiten ez baduzu (nire edaria nahi izaten zuen), amari esango diot, nik ordaindu egiten baitizut, nire langilea zara..." (Z, boliviarra).

Aldiz, etxeetan lana egiten duten bertako emakumeen historietan laneko baldintza gogorak agertzen diren arren, umiliaziorik ez dago.

"Nik egon naizen tokietan etxeko lanak egin izan ditut, baita jatorduak ere, eta beraiekin batera jaten nuen, zoragarri. Noizik eta behin haur batzuk ere zaintzen nituen, baina familia berekoak, oso noizik eta behin. Ez didate inoiz gehiegikeriarik egin, zoragarri portatu dira nirekin. Opariak egin dizkidate, ordaindu behar zidatena baino gehiago ordaindu didate eta nik ez dut inolako kexarik" (EL, bertakoa).

Horrela, laneko bi kode sortzen dira: bata bertako langileentzat, enplegatzaileen kultura eta jokatzeko kode berdinak dituzte eta enplegatu baldintza aitortzen diete; eta bestea langile etorkinentzat, baldintza txarragoetan kontratatzen dira, euren migrazio egoera dela eta.

Umiliazioak areagotu egiten dira enplegatu horiek etxean bertan bizi direnean (ikusi dugunez, gaur egun emakume etorkinak dira horrelako guztiak). Kasu honetan partekatuko espazioan ere besteren mende egoten dira, eta elementu hau kontu

handiz hartu beharrekoa da, batez ere janariari dagokionean. Familiarekin batera eta familiak jaten duen gauza bera jaten dutenek tratu onaren adierazletzat dute hori; bestela, praktika umiliagarriak daude janariari dagokionez ere, enplegatuek beste zerbait jaten baitute edo familiak utzitako hondarrak edo plastikozko plateretan jan behar dute.

Janariari dagozkion keinuak positiboak direnean, zaintzaileek balio handia ematen diete. Askotan, janariarekin duten tratua nahikoa izaten da etxe batean geratzeko edo etxe horretatik joateko.

"Nik ez nuen soldata txarrik, berarekin jaten nuen gainera eta berak esaten zidan «erosi arrain ona, tomate onak, letxuga onak» Ongi jaten genuen..." (Z, salvadortarra).

Enplegatzaile-enplegatu etorkin erlazioaren beste alderdietako bat, honen egoera administratiboaren erregularizazioari lotuta dago. Gehienek esan dutenez, ez zaie erregularizatzeko izapideak egiteko ezer egin. Lortu dutenak, zorioneko sentitzen dira. Baina diskurtso bakar batean ere ez dugu aurkitu enplegatuaren laneko eskubideak errespetatu eta erregularizatzeko laguntza izan duen inor.

"...orain egin ditzaket paperak eta ilobarekin ELera joan ginen eta soldatarena eta gutxieneko baldintzena ikusi genuen, baina soldatarena ez zen inoiz bete..." (Z, nikaraguarra).*

Hau da, enplegatzailearen eta enplegatuaren arteko harremana laneko lotura baino gehiago lotura pertsonala izaten da, enplegatua enplegatzailearen sinesmenen arabera geratzen da eta bere umorearen mende ere bai, horrela, enplegatzailearen ontasuna-gehiengotasuna eta enplegatuaren gutxiagotasuna egia bihurtzen dira (Aguilar Idañez, 2008). Hizkera ere menpekotasunerako tresna bihurtzen da harreman bitxi horretan (Catarina eta Oso, 2000), enplegatuari tratu familiarregia ematen zaionean, «neska» izaten da hau eta boterea duena, aldiz, «andrea».

2.4. Lotura pertsonala zaintza lanean

* Etxeko Langileen Elkarte

Baldintza txarretan garatu eta soldatu txikiak izan arren, zaintza lanetan zaintzaileei plus bat eskatzen zaie: goxo egin dezatela, zaintzen duten pertsonarekin profesionalak ez ezik maitagarriak ere izan daitezela. Eskakizun hau beti izan da, bai bertako langileekin bai kanpokoekin.

"Nik lanean jardun naizen tokian, gaixotu naizenean ere 92 urteko emakume batengana joaten jarraitu dut, oso gustura egoten baitzen nirekin, berarekin egotera besterik ez naiz joaten, niretzat... amona da." (Z, bertakoa).

"Alde ekonomikoa alde batera utzita, dirua irabazi beharra dugulako egiten dugu lana, harreman pertsonala izugarri gustatzen zait, gustura geratzen zara jendea ezagutu eta tratua izanda. Niretzat oso garrantzitsua da harreman on hori, batzuetan esaten duzu, gutxiago irabazi arren, harreman hori ona izan dadila. Beraiekin ongi egon nadila. Jendearekin. (Z, bertakoa).

"... nik emakume honi bere izenez deitzen nion, baina emakume batzuentzat zaintzen dutena «amona» izaten da. Gauzak ez nahastea garrantzitsua dela esaten diedanean, beti justifikatu egiten didate, eta badakit zaila dela, izan ere, espazio pribatuan nola egin ez nahasteko?" (Z, salvadortarra).

"Niri asko gustatzen zitzaidan neskatoak zaintzea, nire alabak nire herrialdean izateak sortzen zidan hutsunea betetzen baitzidaten..." (Z, boliviarra).

"Nire etxekoandreak iletik tiratzen zidan urduri zegoenean, baina nik ulertzen nuen, bakarrik zegoen eta ez zitzaion inor etortzen nahi zuenean. Gauean ohera sartzen nuenean musu ematen zidan eta eskerrak ematen zizkidan berarekin nengoelako..." (Z, boliviarra).

Lotura honek, ordea, egoera nahasiak sortzen ditu, horrelako lotura bat nahi izaten den kasuetan ere. Zaintzaile askok, batez ere haurrak zaintzen dituztenek, enplegatzailearen zeloak aipatzen dituzte, seme-alabek zaintzaileari zer maitasun dioten ikusten dutenean. Baina berriro ere aldeak daude langilea bertakoa izan edo etorkina izan. Lehenengoari rol hori onartzen zaio eta zeloak konplikazio handiegirik gabe lantzen dira, aldiz, bigarrenaren kasuan seme-alabek ohitura «baxuagoak» hartuko dituzten beldurra ere egoten da, langilearen ohiturak hartuko dituzten beldurra.

"Nik 15 egun egin nituen haur bat zaintzen eta oso gustura geunden elkarrekin, nik uste dut amari horrek ez ziola inolako graziarik egin. Nire ustez bere ama baino gehiago diktadore bat zen eta nire eta haurraren artean lotura sortu zen 15 egunean. Eta hori ere amaitu zen... Ama oso pertsona zorrotza zen eta haurra nirekin ongi konpontzen zen... laster hasi zitzaidan esaten «nire ama al zaren galdetzen didate haurrek» eta hor sekulako lotura sortu zen. Haurrak bere fantasiak zituen eta ni berarekin jolasten nintzen, bere fantasiekin eta amak, aldiz, "ametsetan ari zara, utzi txorakeriak" esaten zion eta haurrak niri begiratzen zidan." (Z, bertakoa)

Beste pertsonak zaintzeak pertsonen arteko erlazioa sortzen du eta horren ondorioz zailagoa da aurrez aipaturikoei mugak ezartzea. Emakume zaintzaile batzuek, esaterako, euren lanaren arrakasta soldataren arabera neurtu ordez, zaintzen dituzten pertsonengan sortzen duten maitasunaren arabera neurtzen dute.

Baina batez ere adinekoak zaintzen direnean, maitasun horri behar baino balio handiagoa emanda, zaintzeko behar berezietarako pertsonak behar bezala zaintzeko egiten den prestakuntza ez da ebaluatzen.

"Neskato hau zaintzen ari nintzela, ohean zegoen emakume bat zaintzea aipatu zidaten eta hara joan nintzen, inolako esperientziarik gabe, zaintzea esaten dizutenean zuk badakizulako zaintzen, beharbada senideren bat edo zaindu duzu eta maitasunez egiten duzu; jendeak uste du zaintzeko tresna guztiak dituzula, zeurekin ekartzen dituzula tresna horiek eta ez da horrela. Erabateko gezurra da hori..." (Z, salvadortarra).

"Oso gogorra zen, niri inork ere ez zidan esaten partxe bat nola jarri edo kura bat nola egin, bazenekiela zirudien eta hori ikasita zentozela. Pazientzia kiloka dugula uste dugu..." (Z, nikaraguarra).

Esan beharra dago familiek, oro har arrazoi ekonomikoengatik, kualifikatu gabeko esku lan hau kontratatu nahi izaten dutela, osasun arloko langile kualifikatuei baino gutxiago ordaindu beharra baitute. Familien aukera honek zaintzaile etorkinen aurkako aurreiritziak sortzen ditu gizartean, Euskadira bertakoei lana kentzera etortzen direla aurpegiatzen zaie eta huskeria batengatik egiten dutela.

2.5. Zaintzaileen gizarte eskala

Zaintza lana mugatzea oso zaila da eta enplegatzailearen eta enplegatuaren arteko erlazioan konplexutasun asko egoten da, baina hala ere, zaintza lana beharrezkoa eta garrantzitsua da. Argi dago egiten dutenek gizartearen gainerakoak baino hobeto baloratzen dutela, batez ere, horrelako lanak egin dituzten bertako emakumeek.

"Oraindik ere argi dut etxea garbitzea ez ezik pertsonak zaintzea oso garrantzitsua dela, oso garrantzitsua, munduko gauzarik garrantzitsuena, ezta?" (Z, bertakoa).

Zaintza lan hauek emakume etorkinek egiten dituztenez, are gehiago devaluatu da lana. Informatzaileek esan digutenari esker, zaintzen dutenen artean maila bat ezar daiteke, euren burua nola hautematen duten eta beste zaintzaileak nola hautematen dituzten dago mailaketa horren oinarrian.

Bertako etxe-langileak eskala horren gaineratik daude. Atzeritarrei dagokienez, filipinarrek duten prestigiorik handiena, talde honi dagokion atalean ikusiko ditugun alderdien ondorioz. Latinoamerikarrak daude hirugarren tokian, Errumaniakoekin batera; hauek europarrak diren arren, latinamerikarrek hizkuntzaren eta tratu «maitagarriaren» plusa baitute. Mailarik baxuenean Magrebeko eta Saharaz azpiko Afrikako emakumeak daude, hauen ohiturak, hizkuntza, erlijioa eta azalaren kolorea dela eta, are nekezagoa baitute lan munduan sartzea.

Emakume zaintzaileek uste dute bereizkeria bikoitza jasaten dutela, emakume atzeritarrak direlako eta etxeko lanak edo zaintza lanak bezalako zerbitzu gutxi baloratuak egiten dituztelako. Ordaintzen den arren, zeregin ***ez profesionaltzat*** hartzen da eta lehen bertako etxeko andreengan eragina zuen horrek berak du orain eragina lan horiek egiten dituzten emakumeengan. Lan hori gizarteak aitortzen ez duenez, emakume etorkinentzat zailtasun gehiago ere badaude euren egoera administratiboa erregularizatu ahal izateko.

Enplegatzaileek euren enplegatuak erregularizatzea aukerako fabore pertsonaltzat hartzen dute eta ez laneko harremanak berarekin duen legezko betebehartzat (Aguilar Idañez, 2008). Enplegatzaileek erregularizazio horren ondorioz beste onura batzuk ere nahi izaten dituzte (gizarte segurantzari dagokiona ez ordaindu, ordainsari berdinen truke ordu gehiago sartu, elikagaiengatik edo gelaren alokairuagatik gehiago kendu, etab.) edo zuzenean atzeratu egiten dituzte emakume horien egoera erregularizatzeko tramiteak, mendekotasun eta morrontzako egoera hori luzatzeko.

Era berean, bertako etxe-langileek ez bezalako tratu pertsonala eta laneko tratua dute. Afrikar emakumeei, esaterako, inork egin nahi ez dituen zereginak eskaintzen zaizkie (pixoihala aldatu, gaixoak bainatu, helduen gorotza garbitu edo belauniko jarrita lurra garbitu), adin txikikoak zaintzen hasi aurretik, esaterako.

Emakume hauek jatorrizko kualifikazio akademikoa ezin izan dute, oro har, homologatu eta lanerako aukerak murriztu egiten zaizkie horrekin, ondorioz, sekulako galera sentimendua izaten dute eta gaixotu ere egiten dira batzuetan hori dela eta.

"Duela sei urte iritsi nintzen hona Unibertsitatean master bat egitera. Laster ikusi nuen zaila izango zela niri zegokidanean lana egitea. Hiru urtez lanean jardun eta nire egoera erregularizatu ahal izan nuen, baina etxeke eta zaintza lanak egiten jarraitzen dut" (Z, hondurastarra).

Azkenik, gizarteko eskalan zenbat eta beherago egon, etxe-langileek eta zaintzaileak orduan eta arrisku handiagoa dute sexu jazarpenera izateko. Bertako zaintzaileek diote horrelako egoeraren bat gertatu zaienean, erantzun eta jazarpenari aurre egiteko gai izan direla, baina etorkinek laneko baldintza txarretako bat gehiago bezala hartzen dute.

"bada, etxeke jauna zenez, dutxatzera joan eta biluzik irteten zen. Eta esaten zizun: Eman krema bizkarrean. Eta zuk batzuetan ez zenuen jakiten zer esan... Atzerritar bat egon zen nire aurretik. Alabak eta gainerako guztiak atzerritarragatik gaizki esaka jarduten ziren. Ni hasi nintzenean harrিতuta geratu nintzen atzerritarraz horrela hitz egiteaz. Baina, jakina, niri gertatu zitzaidanean esan nion neure buruari gizonaren jazarpenagatik utzi zuela lana aurreko neskek, gero beste neska bati ere gauza bera egin baitzion... nik beste hilabete edo bi egin nituen, eta gizonak ez zidan ezer egin, esan nion: Begira, berriro gertatzen bada, e, honaino. Gero ez nuen arazorik izan, barkamena eskatu zidan, ez da berriro gertatuko, hau da, errespetatu egin ninduen. Baina hala ere, atea entzuten nuenena, dardarka jartzen nintzen. Baina ez ninduen gehiago jazarri. Ahal izan nuenean ospa egin nuen..." (EL, bertakoa).

2.6. Etorkizunik gabeko lana

Deskribatu ditugun baldintzetan egiten den lan honen ikaskuntza igorri al dakieke beste emakumeei? Oso zaila da beste emakume batzuek, eta are gutxiago alabek, alor honetan lana aurkitu nahi izatea; oso zaila da beste emakumeei eta alabei hori opatzea.

Bertako etxe-langileentzat familiako soldata osatzeko aukera bat izaten zen beste etxe batzuetan lana egitea.

"Ni 16 urterekin etorri nintzen Galiziatik, senarrarekin ezkondu nintzenean. Iritsi orduko nire ahizpak lan bat zeukan niretzat etxe batean, bera ere lanean ari baitzen. Urte batzuk egin nituen etxe horretan, seme-alabak izatea erabaki genuen arte. Nire lau seme-alabak izan eta txikienak 8 urte zituela hasi nintzen berriro lanean, nire soldata behar baitzen..."

Emakume etorkinen kasuan, euren bizi-proiektua jatorrizko herrialdean duten familia mantentzea izaten da, aurreztu eta, batzuetan, berriz elkartu. Eta euren amek edo alabek lan hau egiterik nahiko ez luketen arren, berriz elkartu nahi dutenean, ez da beste aukera handirik egoten.

"18 urteko alaba ekarri nuen nirekin egon zedin, baina biontzat eta gastu guztientzat nahikoa ez geneukanez, aguretxo bat zaintzen hasi zen. Gainerako orduetan ikasi egiten du. Egia da ez zaiola gustatzen, baina egin beharra dago..."
(EL, hondurastarra).

Informatzaile guztiek lan hau beste edozer lan adina baloratzen duten arren, gizarteak ez dituenez aitortzen jendeak ez du horrelako lanik nahi izaten eta beste lan mota batzuk nahi izaten dituzte, hobeto ordaindutakoak, horrelakorik egin ahal badute behintzat. Baina egia da alor honetako mugikortasuna mugatua dela: Lana egiten den etxean biziz gero, etxe bakar bateko lanak egiteko irten daiteke; hobetzen denean, zenbait ordu egin ahal izaten dira hainbat etxetan eta horri esker denbora libre gehiago izaten da.

Hobekuntza nabarmena egoten da garbiketa enpresa batean arituz gero, kontratatzen zaituenarekin ez duzu lotura pertsonalik izaten edo ezta zaintzen dituzun pertsonekin ere. Baina horrelako enpresetako langile gehienak bertako emakumeak dira, orain emakume etorkinek egiten dituzten lanen neskametzat atzean utzi dutenak.

3. Etxe-langileak: kanpotik datozenak

Orain arte bertako emakumez aritu garen arren, espainiar estatuan jaiotako informatzaile gehienak migratzaileak izan ziren. 1950 eta 1975 artean iritsi ziren Euskadira, probintzia pobregoetatik zetozen, industrializazio prozesua zela eta ongi zegoen inguru honetara bizitza ateratzera etorri ziren.

Inguru bateko aberastasuna deigarria izaten da biziraun nahi dutenentzat edo ekonomikoki aurrera egin nahi dutenentzat. Atal honetan ikusiko dugunez, Euskadiko aberastasunak munduko toki desberdinetako emakumeak erakarri ditu zaintza lanak egitera eta zer baldintzatan aritu diren ere ikusiko dugu.

3.1. Extremaduratik, Andaluziatik, Galiziatik... lan gogorra egitera

Emakume (bertakoak deitu diegu) hauen barne migrazioarako arrazoia ekonomikoa izan zen. Jatorrizko tokietan aukerarik ez zutenez, lurralde oparora (hala esaten zen) etorri ziren, hemen lana aurki baitzitekeen familia aberatsen etxeetan eta haurrak zaintzen eta etxeko lanak egiten, familia horiek ordaintzeko dirua baitzuten.

"16 urterekin eta lehen hezkuntzakoak beste ikasketarik gabe, ez nuen lanerako aukera handirik, baina ezkontuta nengoenez, etxeetan egiten nuen lana eta gauean itzultzen nintzen familiako beste batzuekin batera bizi ginen pisura. Nire senarrak ez zidan utziko lana egiten nuen etxeetan geratzen eta nik neuk ere, oso ongi tratatzen ninduten arren, ez nuen nahi..."

1961era arte enpresa publiko eta pribatuetako lan eta erregelamendu ordenantzarik gehienek ezarri zutenaren arabera, langileak kanporatu egiten ziren ezkontzen zirenean. Ondoren senarren baimena behar zuten kontratuak sinatzeko, merkataritzan aritzeko eta ordainsariaz gozatzeko. Etxeko lanak egitea zen aukerarik egokiena, beste laneko eremu batzuetako kontrolik ez baitzegoen, izaera informala eta isilkakoa zuelako.

Ezkondu aurretik lana egiten zuten etxeetan bizi ez ziren informatzaileen esanetan, ahal zuten bezala bizi ziren, beste familiekin partekatzen zuten pisua, hilaren amaierara iristeko; beste batzuk euren familiarekin bizi ziren eta soldata aitari ematen zioten kudea zezan. Ezkontutakoan, aldiz, senarrei ematen zieten.

Enplegatutakoen eta enplegatzaileen arteko harremana hierarkikoa zen, baina eguneroko tratuari esker, gertuko erlazioa sortzen zen.

"... Urtero deitzen diogu elkarri, loteria trukutzen dugu. Eta haurrak zoragarri. Orain utzi egin dut apur bat, eta egia da apur bat urruti daudela, baina harreman zoragarria izan dugu. Bizi diren herrietako etxeetara joan naiz. Beraiek nireira etorri dira, Errioxara. Oso harreman estua izan dugu..."

Euren historietan ez dute aitortzen enplegatzaileek inolako eragozpenik izan dutenik etxeko lan desberdinak agintzeko, ongi egingo zituzten konfiantza osoz. Seme-alaba txikien zaintza ere euren esku uzten zuten.

"Inoiz ez dira zelatan egon. Inoiz ez dut sentitu nigan konfiantzarik ez dutenik, nire enplegatzaileek diru asko zuten eta goian uzten zuten, mahaian, eta nik gogoratu behar izaten nien eramateko, oso despistatuak baitziren..."

"... nik bi urterekin hartu nuen eta 9 egin behar ditu, oso ongi. Egiten dudak bakarra da, bera zaindu, besterik ez. Baina oso ongi eta jarrai dezala... nire biloba bezala da, oso txikia zela hartu bainuen, nire seme bat bezala da haurra."

Bertako zaintzaileek oso balio handia ematen diote egiten duten zaintzari eta askotan tratu ona onura ekonomikoaren aurretik jartzen dute. Azkenaldian, adinekoak zaintzen ere hasi dira, lan gogorragoa dela aitortzen dute, baina aitortpena ere handiagoa da.

"Zaintzearen onena, adineko bi pertsona hauekin nagoelako dudak asebetetzea da. Zoriontsu ikusten ditut, lagun egiten diet, horrek pozten nau, horrek asebetetzen nau. Eta gero, bada, larunbat eta igande arratsaldeetan joan behar izaten dut. Baina merezi du, gustura egoten naiz bi amonei begira, joan eta besarkatu egiten naute... beno, beno..."

"... Zer alde, e? Egiaz asetzen zaitu pertsona bat gustura ikusteak, baina balio ere egin behar duzu. Pazientzia handia behar duzu eta hurkoarekiko maitasun handia ere bai... eta nik maitasuna badut, baina..."

"Nik adineko bati pixoihala aldatze hori, ospitaleratu egin beharko nindukete, ezin dut, zerbait emango lidake..."

Zaintza lana hautemateko moduari dagokionez, ez kontratatzen dituztenek ez gizarteak behar bezala ez dituela baloratzen esaten dute.

"Nik uste dut ez dela ohartzen pertsona batek zenbat eman dezakeen. Lan hau gustatzen zaion pertsona batek, zuk edo nik bezala, izugarri ematen die pertsona horiei. Asko balio du horrek..."

"Bai, nik adibidez, etxeetan, pertsonaren, adinaren arabera egoten da, ezta? Izan ere adinekoei dena ematen diet, baina berak ni kategoriatu gutxiagoko bezala ikusten ninduen, ni garbitzera joaten nintzelako. Eta nik esaten nion: Baina nik zuk baino ikasketa gehiago dut. Niri bizimodua aldatu zait, nik banuen diru askoko "mutil lagun" bat eta esaten zidaten «esan diozu etxe batean zabilzala lanean?»"

"...niri esan didate (...) harro al nagoen, lan bat dudala. Etxe batean nabilela, pertsona bat zaintzen dudala, baina lanean nabil, zu bezala. Eta gaur egun, ez daukazu aukeraterik... badira kontzeptuak, baina ez azken urteetakoak, baizik eta mendeetakoak, neskamea, neskamea, neskamea... beti gutxi baloratu izan da..."

Egiten duten lana baloratzen duten arren, ingurukoek beti ez dutela baloratzen aitortzen dute, bereziki familiakoek, eta errespetuz begiratzen dutela dirua irabazteko duten modua.

"Nire seme-alabentzat etxe batean lana egitea baxuena zen... banandu nintzanean etxe batean lanean nabilela ez esateko esaten zidaten. Egunero egiten nuen beraiena. Lan hau beste bat bezalakoa da eta Jainkoari eskerrak eman beharrean gaude hau dudalako eta jaten dugulako..."

Beste alderdi batzuetan ere balorazio gabezia bera dago, lanaren erregulazioa bezala.

"24 urte daramatzat etxe berean lanean, askotan eskatu diet aseguruia egiteko, baina orain arte ez didate egin..."

"... lana utzi behar nuenean, orduan kontratatu nahi izan ninduten. Aseguruia egin eta kontratatu..."

"Egunen batean gaixotzen bainaiz edo lanik ez badut edo sendagilearengana joan behar badut, niri ez dit inork ordaintzen..."

"Bi pertsonak baino ez naukate aseguratuta, baina segurua nik ordaindu behar izaten dut. Hiru hiletik behin 25€ oso garestia dela esaten didate..."

Etxeko lanak eta zaintzak egiten dituzten lehenengo zaintzaileek horrelako lanengatik ordain zezaketen inguru ekonomikoan egin zuten lana. Nahiz garai haietan nahiz orain bertako langileek gizartearen balorazio gabezia hautematen dute euren lanarekiko, baina ez dute baldintza umiliagarrietan egiten. Euren baldintzak hobetzeko borrokatu beharra dute eta enplegatzaileen errespetua irabazteko ere bai, baina oro har lanaren balantze ona egiten dute informatzaileek.

Beste lanpostu batzuk izatea pentsatzeko gaitasunik gabe, batzuek geriatrikoetan sartzeko gaitasuna lortu dute, hau da, lan honetan mugikortasuna lortu dute. Inor ere ez da bizi lana egiten duen etxean, batzuk gaztetan hala bizi izan ziren arren; gaur egun gehienek orduka egiten dute lana, batez ere zaintzen; etxeko lanak egiten dituztenek, etxe batekoak baino gehiagotakoak egiten dituzte. Azken finean, hauek izan ziren lan honetan aitzindari eta orain zaintzen eskalan ongien kokatuta daudenak dira.

3.2. Filipinetatik... etxe aberatsetara

AEBetako mugak itxi zirenean, Filipinetako migrazioak Espainia aldera begiratu zuen. 1972 aldera hasi ziren Filipinetako gizonetakoak etortzen. Handik urte batzuetara emakumeak hasi ziren, lehenengo berriz biltzeko eta gero dei efektua delakoaren ondorioz. Migrazio handi hauek 70eko hamarkada amaieran izan ziren eta, hein handiagoan, 80 eta 90eko hamarkadan.

Hasieran migrazioaren protagonista nekazari pobrea zen arren, 80ko hamarkadatik aurrera migratzen dutenak gizarteko maila guztietakoak dira eta hiri ingurutik datozen migrazioak izaten dira.

Hasieran Euskadira iristen ziren filipinar emakumeak lana egiten zuten etxeetan bizi ziren. Mota honetako lanaren ondorioz egoera prekarioan zeuden, isolamendu handia baitzuten, hizkuntza ez zekitelako edo gizarte sarerik ez zutelako.

"Nire herrialdera deitzen nuenean negar egiten nuen eta amak esan zidan «etorri zure herrialdera», baina nik esan nion zor handiak genituela eta ez nintzela joango..."

"... lana egiten nuen etxean bizi nintzen hasieran. Ez zidaten gizarte segurantz ordaintzen eta igande eta ostegun arratsaldeetan irten nintekeen. Hasieran lana egiten genuen etxeetan bizi behar ginen, gure pisurik ezin baikenuen izan. Gure erkidegoko beste lagunekin elkartzeko, tabernetan egiten genituen bilerak eta jateko zerbait eramaten genuen, ahal izanez gero. Seme-alabarik ere ez genuen nahi, baldintza hauetan seme-alabak izateko beldur baikinen..."

Filipinetako neskametza maila sozioekonomiko altuko familiei lotuta dago. Filipinetako enplegatuak kontratatzea, familia hauen estatus soziala mantentzeari lotuago dago, familiako eta laneko bizitza uztartzeko egiazko beharrari baino gehiago. Herrialde honetako emakumeak "finak, isilik, zintzoak eta eraginkorrak" direla esaten da.

"Lehen koroa bat (kofia) jartzen genuen buruan, eskularruak erabiltzen genituen, arropa berezia, udako arropa desberdina zen".

"Sukaldeko lanak egiteko arropa bat eta zerbitzatzeko beste bat nituen. Negukoak mauka luzeak eta aurreko mantala zituen. Nire etxeoandreek galtzerdiak erosten zizkidaten eta jendea artatzeko takoiak jantzi behar izaten nituen. Jatetxe batean bezala zerbitzatu behar izaten nuen eta horregatik dakit nola zerbitzatu behar den"

"Etxekoandre askok filipinarrak nahi dituzte, ez dakit zergatik, baina filipinarren bila ibiltzen dira. Nik baditut lagun atzerritarrak, baina ez dituzte nahi, ez dakit zergatik... beraiek «ez, filipinarrak» esaten didate."

Herrialdean legez bizitzeko arazorik gabe, ingelesez hitz egiten duen enplegatu baten prestigioari esker, kontratatzen duen familiak etxeo haurrentzat ingeleseko irakaslea lortzen du doan, horren ondorioz, langile askok hemen urteak daramatzaten arren, ez dakite ez gazteleraz ez euskaraz.

"Niretzat zaila da gazteleraz ikastea, nirekin ingelesez hitz egiten baitute. Andrea irakaslea da eta hurrei ingelesez hitz egin behar izaten diet. Haurrak ingelesez egiten duten ikastetxe batera joaten dira. Filipinarrak nahi dituzte, ingelesez hitz egiteko..."

"Lehen ez nuen gazteleraz ikasteko denborarik, goizeko seietatik hurrengo goizeko ordu batera arte egiten bainuen lana eta libre nuenean arratsaldeko bostetatik gaueko hamaiketara nuen, nora joango nintzen ordutegi horrekin? Ezin nuen ikasi. Gaztelera gehiago ikasi dut haurrak zituzten etxe batean lana egin dudanean; beraiek ez zeudenean euren lehen hezkuntzako liburuak irakurtzen nituen eta horrela hasi nintzen ikasten, esaten zidatena ulertu nahi nuen..."

Horrela sortzen dituzte filipinar enplegatuak eta zaintzaileak kontratatzeko sare informalak. Enplegatzailiek eurek gomendatzen dizkiete familiei eta lagunei filipinarrak kontrata ditzaten eta enplegatuei euren herrialdeko emakumeak lortzeko eskatzen die, lan hauek egiteko.

"Beraiek badakite, etxeakoandre kateak baitira, langile filipinarrak nahi dituzten lagunak izaten dituzte eta esaten diete «esan zure neska niretzako filipinar bat aurkitzeko», horregatik aurkitzen dute lana filipinarrek, katea horiengatik, etxeakoandreaken lagunak edo amak filipinar neska bat dutelako etxean lanean eta gero lagunak edo neska filipinar bat nahi izaten du, badakitelako lana nola egiten duten eta horrelako neska bat nahi izaten dute beraientzat..."

"nik banekien, lagunak esan baitzidan «zuk lana egin dezakezu, hemengo lana desberdina da». Bai, ongi irabazten duzu, orduan banoa, esan nion... lagundu egin dit, lehen erraza baitzen, ez zegoen bisarik, beste emakumeak sartu diren bezala sar zitekeen, 81ean oso erraza zen sartzea, ni 81eko irailean iritsi nintzen. Oso erraz eta inolako arazorik gabe".

Filipinar informatzaile gehienek migrazio proiektu ekonomikoa zuten arren, baziren hezkuntza maila altuagoko eta beste nahi batzuekikoak ere, euren nahiak ez zirela beteko zekitelako migratu zutenak.

"Begira, nire herrialdeko soldata baxuagatik migratu nuen, aukerarik ez zegoelako, herrialde desberdinak ikusi eta bidaiatzeko. Ez da soilik soldata izan, bidaiatzea oso gustuko dut... baina familiara dirua igorri beharra nuen, diru hori behar baikenuen".

"Ni haurren hezitzailea naiz. Iritsi nintzenean ezkondu gabe nengoen eta dirua bidaltzen nuen. Ilobak eskatu dit «izeba, zu Espainian baitzaude» eta nik bidali, jakina... Beste lanen bat gustatuko litzaidake, jakina, esperientziak izateko..."

"Egon nintzen lehenengo etxean bi hilabetez negarrez jardun nintzen lanagatik, lisatzen aritu behar nuelako, hain ohe handi eta astuna egin behar nuelako, «ez da nire lana» esaten nion neure buruari, txakur bat zuten eta xurgagailua pasa behar izaten nuen egunero, eta badakizu? mina ematen zidan, egunero negarrez nintzen... ordaindu beharra nuenez, ohitu egin nintzen pixkanaka, baina lehenengo etorri nintzenean negar asko egin nuen eta nire lanarekin gogoratzen nintzen, haurrak ikusten nituenean «nire herrialdean hauekin jardungo nuke lanean» esaten nion neure buruari, hamar urtez txinatar ikastetxe batean egin bainuen lana..."

Jatorrizko herrialdeetan familiek sustatu zituzten informatzaileak migratzera, etxeko eta zaintza lanak eginaz aukera gehiago izango zutela uste zutelako; euren kulturaren zeregin horiek emakume on guztien erantzukizunei lotuta baitaude.

Baina filipinar zaintzaileek Euskadin egiten duten lanean bada gustatzen ez zaien gauza bat: haurrak hezteko modua eta, batez ere, helduei zaien errespetu txikia.

"Nire ustez berdin zaintzen ditut, baina Filipinetako haurrak desberdinak dira..."

"Haur batzuk zaintzea tokatu zitzaidanean (lehenengo esperientzia), oso gaiztoak ziren. Gurasoek ez zuten nahi izaten haurrak eurak esnatzera joaterik. Hitz itsusi asko esaten zuten, coño eta antzekoak... eta nik ezin nuen jasan. Behin jo ere egin ninduten. Gaizki pasa dut. Haurrak oso edukazio txikikoak dira, diru asko baitute. Tuntuna, esaten zidaten".

"Niretzat berdinak dira, baina hemengoek erantzun egiten dute. Amei erantzuten diete eta gure herrialdean hori ezinezkoa da. Gurasoei oihu egiten diete..."

Euren prestakuntzagatik, izaeragatik eta, batez ere, ingelesa dakitelako eskari handia dagoen arren, filipinar informatzaileak ez dira ongi baloratuta sentitzen. Euren iritziz ematen dutena baino gutxiago jasotzen dute, baina konpromiso ekonomikoak dituzte jatorrizko herrialdean, beraz, laneko baldintza horiek jasaten jarraitzen dute.

"Lehen urtero igotzen zidaten, orain ez. Duela bost urtetik urtean 2,50 euro baino ez didate igotzen..."

"Lanean ari naizen tokian, duela zortzi hilabetetik hona bi aldiz egin didate gauza bera, amarru bat da, dirua utzi didate nik hartuko ote dudan ikusteko..."

"...nik dirua behar nuen gurasoei bidaltzeko eta lanez aldatu behar izan dut berriro, baina hor hiru-lau urte egin ditut, oso diru gutxi ematen zidaten..."

"... lehenengo bost urteetan oso gutxi izan nuen, soldata txikia, nire herrialdera dirua igorrita, ia ez nuen aurrezten eta bidaiarako eta hemen gastatzeko aurreztu beharra duzu..."

"... lan honetan etxeko gizona ona zen, baina andreak izaera gogorra zuen. Janaria eroastera bidali ninduen behin; nire logela terraza moduko batean zegoen eta hotz handia egiten zuen, beraz, berogailu bat behar nuen; bada, erosketetatik etorri nintzenean berogailuko haria moztuta neukan eta zer gertatu zen galdetu nionean, nire errua zela esan zidan, ez nuela horrelakorik jarri behar. Negar asko egin nuen, hotzaren hotzez ezin bainuen lorik egin. Andrea ez zen jatorra, baina gizona bai..."

Filipinarrak zaintzaile eta etxe-langile talde itxia dira. Hizkuntzaren arazoa dela eta, ezin dute beste emakumeekin elkartrukerik izan. Emakume horietako askok urteak daramatzate euskal hirietan bizitzen eta euren jatorrizko herrialdera joateko asmorik ere ez dute, baia ez dira hemengo sentitzen, eta euren mugikortasuna oso txikia da. Dirudun familiekin lana egiteko aukera dute, gutxi ordaintzen dieten arren, eta horrek banandu egiten ditu, baina horrek berak euren buruak baloratzeko ere balio die.

3.3. Latinoamerikatik... gaizki uztartzen den etxeetara

Filipinar emakumeek etxe aberatsetan egiten dute lana, baina Latinoamerikatik datozenek etxeko eta laneko bizitza uztartzeko gizarteak inolako alternatibarik eskaintzen ez duelako sortu den zuloa estaltzen dute. Euskal emakumeak lan merkatuan sartu dira, zaintzarako alternatibarik ez dago eta bizi-itzaropena gero eta handiagoa da, ondorioz, zaintza lanetarako jendea behar da eta hor kokatzen dira Latinoamerikako hainbat herrialdeetatik datozen emakume etorkinak 1985az geroztik.

Hasieran dominikarrak eta perutarrek, gero ekuadortarrak eta kolonbiarrak, eta azken urteetan boliviarrak, paraguaitarrak, salvadortarrak, nikaraguarrak eta hondurastarrak etorri dira zaintza lanak egitera, baina horien artean iritsi zireneko data jartzen da lan merkatuan kokatzeko faktore bereizle bezala. Hau da, Zapateroren gobernuak 2005ean biztanleria etorkinak administratiboki

erregulatzeko prozesua egin zuen eta horri esker, baldintzak betetzen zituzten emakumeek euren egoera erregularizatu egin zuten eta, ondorioz, lanerako baldintza hobetan daude. Aldiz, gero iritsi direnek ez dute euren egoera administratiboa hobetuko den itzaropenik.

Gainera, herrialdean denbora gehien daramaten etorkinek ingurua hobeto ezagutzen dute, ohiturak, hiri batzuk, etab. eta iritsi berriek ez dute horrela elementurik izaten, hori dela eta, zaintzen piramideko beheko zatian kokatzen dira, esperientzia handiagoko eta paperekiko etorkinek utzitako tokian, hain zuzen ere.

"... Hemen gure herrialdeko jendea poliziaren beldur da, paperik ez dutelako; egun batean nire senarrarekin batera alokatuta nuen pisura etorri zen polizia, 350 euro ordaintzen genuen hilean, baina ez genuen alokairuko kontraturik sei hilabete generamatzan arren, horri esker, erroldatu egin ginen eta herrialdean generaman denboraren berri eman ahal izan genuen."

"... eskaintza egiten dizutenean «zeuk ikusiko duzu» esaten dizute eta 400 euro eskaini; jangela batera joaten bazara, zer egingo duzu? Besterik ez baitago..."

"... inoiz ez nuen horrelako toki batean gehiago lanik egin, non sartzen nintzen ongi ikusten nuen lehenengo eta hemen denbora neramanez, jendeak gomendatu egiten ninduen eta etxeetara iritsitakoan ez nintzen ezezaguna, baizik eta gomendatutako bat nintzen..."

Baina erregularizatuta egoteari esker enplegatu eta zaintzaile batzuek laneko aukera hobeak dituzte, euren lanaren mugak argi ezartzea lortzen ez duten arren.

"Ni arropa lisatzeko kontratatu ninduten eta orduaren prezioa negoziatu zutenean, gainerakoei baino gutxiago eskaini zidaten... bigarren astetik aurrera komunak garbitzen ere hasi nintzen eta hirugarrenetik aurrera bi urte baino gutxiagoko haurra nirekin uzten zuten lisatzen ari nintzen bitartean... ez nuen jakin edo ezin izan nuen ezetz esan, baina haurra lisatzen ari nintzela inguruan korrika eta jolasean ibiltzea oso arriskutsua zen, urduri jartzen nintzen..."

Esandako lanen malgutasun hau hazi egiten da, adineko pertsonak zaintzen direnean. Informatzaileek esaten dutenez, zenbait kasutan euren kargu uzten dituzten pertsonen ez die inolako jaramonik egiten familiek. Pertsona hori pakete

bat balitz bezala ematen zaie eta ez dute egoeraren jarraipen egokirik egiten, ezta izan ditzakeen bestelako beharren jarraipenik ere.

"Zaintzen nuena hil zitzaidan eta ez nuen inor aurkitu. Paperik gabe nengoen eta poliziari deitu behar izan nion, zer egin behar nuen gorpuarekin? Deitzen nuen eta ezer ere ez, dena itxita zegoen, iloba Parisen eta ni preso eramango nindutela pentsatuaz, baina zer egin behar nuen andrearen gorpuarekin? Azkenean ez ninduten preso eraman, baina horrelakoak ematen dizkizutenean..."

Latinoamerikatik datozen emakume askok egiten duten lanarekin bat ez datorren prestakuntza dute, nahiz eta hartzen dituen gizarteak jatorrizko herrialdeko mailarik baxuenean kokatzen dituen. Emakume horietako gehienek badakite lanerako aukera gehiegi eskaintzen ez dien gizarte batera datozela, baina etxeko lanetan aldi batez baino ez direla ibiliko amesten dute, euren prestakuntza garatzeko txokoren bat aurkituko dutela lehentxeago edo geroxeago.

"... Ni Ingalaterrara joan nintzen lana lortuko nuela pentsatuaz. Inoiz ez nuen nire aberria uzterik pentsatu, traizioa egiten ari nintzela iruditzen zitzaidan; bi urte egin nahi nituen kanpoan eta garatzen ari nintzen proiektu batera itzuli... baina gero hona etorri nintzen eta dirurik gabe, etxeko lanak eginez irabazten nuenarekin, gela eta nire gastuak baino ezin nituen ordaindu. Horrela lortu nuen nire lehenengo lana Areetan, Down sindromea zuen neskatok bat zaintzen. Nire lehenengo erronka izateaz gain, oso gogorra izan zen, gauza asko ikasi nuen besterik ezean..."

"Hori gertatzen zaigu latindarroi etortzen garenean, lan honek esanahi handia du han eta oraindik ere aurre egiten diogu irakurtzen den moduaren ondorioz, beste modu batera balitz, beharbada egiteko gogo handiagoa genuke..."

Latinoamerikar emakume gehienek proiektu ekonomiko batengatik migratzen dute, baina badira familia barruko gehiegikeriengatik edo indarkeriagatik etorritakoak ere; horientzat migrazioa aukera bat da, batzuetan gehiegikeria horietatik bizirik irteteko aukera bakarrak, nahiz eta migratzeko zor handiak egin behar eta gero horiek laneko baldintza oso gogorrak onartzera derrigortu.

Erdialdeko Amerikako emakumeak izan dira iristen azkenak eta Euskadira iristen jarraitzen dute. Immigrazio horren feminizazioaren ehuneko oso altua da. Badakite krisiaren ondorioz, etxeko lanak besterik ezingo dituztela egin eta emakumeak direnez, hor sortzeko aukera dutela.

"Banekien zertara nentorren, lagun batek hitz egin dit honi buruz, baina hala ere etortzea erabaki nuen hiru haur dauzkadalako..."

"Nik andre bat zaindu dut zenbait urtez. Nirekin ongi konpontzen zen, lasai eta goxo hitz egiten dudalako. Nire zaintzak beti eskertzen zizkidan..."

"Seme-alabei dirua bidali ahal izateko etorri nintzen hona eta ezin nuen beste ezertan gastatu dirua. Argi dut mantendu ahal izateko utzi ditudala."

Latinoamerikar emakumeak dira egungo egoeran laneko eta etxeko bizi-uztartzeko zailtasunak dituzten euskal emakumeekin harremanik handiena dutenak, Estatuak hemengo emakumeei banako irtenbideak eskaintzen baitizkie. Eta horrela, beste behin, pertsonen zaintzak aurrez aurre jartzen ditu emakumeak: Enplegatzaileek denbora gehiago izateko eta gutxiago ordaintzeko, enplegatuek lan duina lortzeko, euren jatorrizko herrialdeetan utzitako familia mantendu ahal izateko.

Tentsio honetan, informatzaileek esaten dute euren eskakizunak mehatxuen bidez erantzuten dituztela askotan, gehienetan egoera irregularra salatzen poliziarengana joango direla esanda. Gutxitan lortzen dituzte baldintza hobekien euren errebindikazioen ondorioz, are gehiago, okerrera egiten dute askotan. Horrela, bada, iraultza saiakerak erraz eta azkar zapuzten dira.

"Lana egiten nuen andreari irailera arte geratuko nintzela esan nion eta gero beste lan bat nuela hitza emanda eta hara joango nintzela. Baina berak ez ulertuarena egin zuen eta etxean gerarazten saiatu ziren, etxean jarraitzen ez banuen poliziarri nire berri emango ziotela esan zidaten".

"Etxe horretan gizonezko adineko bat zaintzen hasi nintzen, hilabetez proban edukiko nindutela esan zidaten, atzerritarra nintzelako. Hilabete horretan ez zidan gainerik begirik kendu... inoiz. Hilabetera, esan zidan ez zidala gainerik kendu aurrez bere aita zaintzen egondako neskek tabernara joaten baitziren aita zaintzen egon ordez eta aita bakarrik uzten zuten. Azkenean kontratatu egin ninduen, baina ez zuen ni legez-tatzerik nahi izan, berdin ziola esan zidan, legezko edo ez, laneko baldintzak berdinak izango zirela".

"Nire lagun batek haurrak parkera eraman eta askaria eman besterik ez die egiten, baina neska hori hemengoa da, jakina. Eta beste bat zenbait tokitan ari da lanean orduko 12 euroren truke, horrela gehiago irabazten da, baina guri gutxiago ematen digute, ahal balute hemengo emakumeak baino ez lituzkete kontratatuko, baina hemengorik ez dagoenez, etorkinak kontratatu behar izaten dituzte zaintzarako eta etxeko lanetarako".

Eta bere esperientzian zaintza eta zaintzen duten pertsonarekiko maitasuna nahastu egiten diren arren, badakite enplegatzen dituztenek argi dutela eta zaintzen duten adinekoa hiltzen denean, berriro ere kalean geratzen dira, gehienak inolako kalte-ordainik gabe eta berriro ere laneko baldintza duinen alde borrokatuaz.

3.4. Errumaniatik... edozein etxetara bolada baterako

Errumaniar emakumeen egoera beste taldeetakoena ez bezalakoa da. 2009az geroztik laneko baimenik gabe sar daitezke Espainian, beste europar herrialdeetako herritarren estatuz juridiko berdina baitute. Beraz, lana egiteko baldintzak erabat aldatu ziren urte horretatik aurrera.

Errumaniar immigrazioa nahiko berria da, baina bere ezaugarrien ondorioz azkar hazi da, immigrazio familiarra baita batez ere eta ez latinoamerikarra bezala emakume bakarrena edo emakume taldeena. Ezkutuko ekonomian lana aurkitzeko aukerak (gizonek eraikuntzan eta emakumeek etxeko lanetan) errumaniar migrazioa sustatu zuen.

Azpimarratzekoa da emakume errumaniarrek gizonek baino askoz azkarrago ikasten dutela hizkuntza. Euren hizkuntza ere latindarra da eta Errumanian telenobela asko ikusten dira gazteleraz. Errumaniar zaintzaileek badakite hizkuntza berean komunikatzeko gaitasuna oso garrantzitsua dela pertsonak zaindu ahal izateko eta, oro har, eskaintzen zaien edozer zeregin egiteko.

"Nik haur batzuk zaindu nituen eta ondoren adineko emakume bat ere bai. Ez nuen bi lan horietan inolako arazorik izan... etxeak ere garbitu ditut"

Eta latinoamerikar emakume immigranteek bezalako trebetasunik ez dute eta haiek adinako goxotasunik eta mendetasunik ez dutela diote, baina hala ere aurrera egin ahal izan dute.

Beharbada enplegatzaileek enplegatuen adina oso baloratzen dutelako, adin handiagoko emakumeak nahiago izaten dira 30 urtez azpikoak baino. Ezin da ahaztu, krisiak krisik, errumaniarrak europarrak direla eta horrek euren estatusa apur bat igo egiten du.

Enplegatzaileek erabiltzen duten oinarritzko beste hautaketa irizpide bat norbaitek gomendatu izana da eta horretarako oso baliagarria da errumaniar zaintzaileek euren herrialdeko beste emakumeez eman dezaketen erreferentzia. Emakume horietako bat oporrenatik edo beste arrazoiren batengatik ordezkatu beharra dagoenean, ohikoa da bere tokia herrialde bereko batek betetzea.

Lana egiten duten etxean bizitzeko aukerari esker, errumaniar emakumeek geratzeko toki segurua izan dute. Kontratatzan dituzten familiek abantaila bat izaten dute, adineko mendeko pertsona baten edota haurren kargu egingo den norbait izateaz gai, etxeko lanak egingo baititu pertsona horrek.

"Iritsi berri nintzela kontraturik gabe egiten nuen lana, baina berdin zidan, ongi tratatzen ninduten eta nire bi semeek nik bidaltzen nien dirua behar zuten bizitzeko".

"Denbora asko igaro zen irten eta jendea ezagutzen hasi arte, lagun bakarra nuen eta asko lagundu zidan nire gauzekin; orain bera dago egoera txarrean eta nik ahal dudan guztia egin nahi dut berari laguntzeko, hasieran bera besterik ez bainuen ezagutzen".

Hasierako egoera igarotakoan, gainerako zaintzaileek bezala, lana egiten duten etxeetatik kanpo bizitzen hasiz gero izango luketen maila aldaketa aipatzen dute.

"Orain hiru egunez egiten dut lana etxe batean, baina orain ongi nago. Lehen lana egiten nuen etxean bizi nintzen, ez nuen ia irteteko aukerarik, ez nuen adiskiderik, ez nuen norekin hitz egin. Nire semeei telefonoz hitz egiten nienean baino ez nuen norekin hitz egin, baina haiei ez nien horrelakorik kontatzen..."

Informatzaile errumaniarrek badakite bertako langileekin alderatuz gero desabantailak dituztela, askoren ustez hizkuntza ez dakitelako den arren. Badakite, halaber, aukera handirik ez dutela eta enplegatzailearekin negoziatzeko gaitasun txikia dutela ere bai.

"Begira, nire alabak 150 euro irabazten ditu bere herrialdean eta horrekin jan, ikasketak ordaindu, osasun kontuak ordaindu eta dena egin behar du, nola esango diot ezetz lanen bati? Nola biziko da bera nik laguntzen ez badiot?"

Beste herrialdeetako zaintzaileek bezala, errumaniarrek ere etxeko lanetan aldi batean jardun nahi dute, herrialdean hobeto kokatu eta beste lanen bat lortu arte; beste lan horretan sari ekonomikoa eta gizartearen aitortpena handiagoak izango dira.

"Nik ez dut bizi osoan lan hau egin nahi, jakina ezetz, nire herrialdean ikasketak egin ditut, baina orain dirua behar dut eta lanera etorri naiz hona..."

"Nik ez dut beste lanetan pentsatu ere egiten, oraindik ez dut gazteleraz ongi hitz egiten.

Hemendik urte batzuetara nire herrialdera itzuli nahi dut..."

Hauek ere tratu txarrak eta umiliazioak zer diren badakite, baina latinoamerikarrek baino gutxiago. Kexarik handiena da eguneko hogeita lau orduetan mendeko pertsona bat zaintzen egotea karga psikologikoa dela.

"Etxeetako batean errumaniarrak lapurrak eta mafiosoak zirela esaten zuten, eta nik ezin nuen ezer esan..."

Gainera, jaso dezaketen arreta baloratzen dute, batez ere osasun arlokoa; kontuan izan behar da ustelkeria arazo handia dela Errumanian eta bertako biztanleen gizarte oinarriaren sistema jan du.

"Hemen osasun kontuak ez dira nire herrialdean bezala eta oso eskertzekoa da, izan ere, zerbait daukadala esan dit sendagileak eta badakit gaixo banago artatu egingo nautela. Nire aitaginarreba gaizki zegoela, ia hilean zegoela, sendagileak ez nuen ikusi nahi izan 20 euro eman genizkion arte, osasungintza estalita egon arren; ustelkeria ikaragarria dago. Diru hori eman izan ez bagenio, ospitaleko pasilloan hiltzen utziko zioten... hemen badakit horrelakorik ez didatela egingo..."

Egia da errumaniarrek euren esperientziaren balorazio hobea egiten dutela, familiarekin hobeto komunikatzeko aukera baitute. Bidaia luzea izan arren, lurrez bidaiatu daiteke eta horrek sustatzen ditu, kontinente berdinean daude eta

distantzia psikologikoa laburragoa da. Hori dela eta, irregularitate administratiboaren umiliaziorik horrenbeste jasan behar ez dutelako eta gizarte mailako abantailengatik, errumaniar langileak eta zaintzaileak, oro har, ongi sentitzen dira eta ahaleginak merezi duela ikusten dute seme-alaben etorkizunagatik.

"Oso gazte geratu nintzen alargun, bi seme izan eta senarra hil zitzaidan 28 urte besterik ez nituela. Orduz geroztik denetik egin dut familia mantentzeko. Etortzea erabaki nuenean banekien bakarrik egon beharko nuela, baina beharrezkoa zen. Semeek Unibertsitatea amaitu behar dute eta nik handik ezin nien eman behar zutena. Orain, nire lanari esker, biak ongi ari dira ikasten eta zaharrena Ingeniaritza amaitzeko zorian dago".

3.5. Afrikatik... inora ez

Deskribatzen ari garen zaintzaileen eszenatokian, afrikar emakumeak barren-barrenetokian daude. Hala sentitzen dute, hala bizi dute eta hala kontatzen dute eurek ere. Esperientziarik umiliagarrienen ondorioz eta mirabetzatik gertu dauden laneko baldintzen ondorioz, Magrebeko eta Saharaz azpiko Afrikako informatzaileek ez dute euren esperientzietan ia ezer positiborik ikusten.

Afrikar biztanleriaren migratzeko erabakia ez zen banako proiektua izaten eta gaur egun ere familiaren proiektua izaten da edo erkidegoarena; erkidegoak indartsuenen aldeko apustua egiten zuen, gehienetan gizonik gazteenen aldekoa. Emakumeak bidalketaren zain geratzen ziren eta familia, lurra eta gizartea, oro har, zaintzen zuten; nahiz eta adinekoen autoritatearen mende egon.

Europar afrikar emakumeaz dugun irudia pertsona alfabetatugabearena da, mendekoa, otzana, jatorrizko hizkuntza ulertzeko aukerarik gabea, mirabetzako historia duena. Ikuspegi horretatik tratua erdeinuzkoa edo paternalista izaten da, emakume horiek askatzea da kontua, gizarte aurreratuago batean sartzeko aukera ematea.

Afrikar emakumeek, ordea, ez dute estereotipo hori beti betetzen eta horri aurre egiten diote; ondorioz, euren migrazio proiektuak karga bat gehiago izaten du. Marokoar emakumeen migrazioa oso altua izan da 80 eta 90eko hamarkadan, etxelangile etorkinen deia erantzunez. Lana egiten zuten etxean bizitzeko aukerak erakartzen zituen, horrela aurrezteko aukera baitzuten.

Azpimarragarria da Marokoko familiek herrialdetik bakarrik irteten utzita permisibitate handia erakutsi dutela; nahiz eta hornitzaile ekonomiko oso garrantzitsuak direlako eman baimena. **Rol honek bakarrik ez migratzearen "legea"** alde batera uzteko baimena eman die. Gure informatzaileen kasuan, behar ekonomikoak ohiturek baino pisu handiagoa izan zuten.

Ezkondutako emakume marokoarrei dagokienez, zenbait etxetan lana egitera etorri izan ziren gehienak. Jatorrizko herrialdeetan ere etxeko lanak egiten zituzten (beste familien arropa garbitu, etxeak garbitu, etab.), nahiz eta batzuek enplegu kualifikatuak ere bazituzten. Dena dela, euskal etxeetara iritsi zirenean aurrez ezagutzen ez zituzten egoerak ezagutu zituzten: etxetresna elektriko ugari etxeetan, ordutegiak, ohiturak...

Oro har, informatzaileek zailtasun handiagoa izan zuten lana aurkitzeko euren jatorri eta ezaugarriengatik. Balizko enplegatzaileek emakume hauek ezagutzen dituztenean atzera egiten dute ia beti, nahiz eta gutxitan esaten dute emakumeen jatorria edo azalaren kolorea dela ez kontratatzeko arrazoia.

"Nik sentitzen dut, etxe batera iritsi eta etxekoek ikusten nautenean, atzera egiten dute beltzarana naizelako. Ez zaie gustatzen".

Afrikar emakumeen azalaren kolorea dela eta, beste inork nahi izaten ez dituen garbiketa lanak egin behar izaten dituzte. Bereizkeria honetarako arrazoietakoa bat bere gorputzari buruzko aurreiritziak dira, batez ere usain txarra dutela.

"Askotan aipatu didate usaina, jaten dugun janaria, etab. Zikinak garela ere esan izan dit jendeak..."

"Bizi ginen tokian urik ezagutzen nuen galdetu zidan behin emakume batek eta beste batek gure herrialdeko emakumeok hilekoa bagenuen jakin nahi zuen".

Zaintzari dagokionez, adinekoak zaintzeko gehiago kontratatzen dira, haurrak zaintzeko baino. Informatzaileek diotenez, zaintzen dituzten pertsonak gehiegikeria ugari egiten diete eta askotan sexu jazarpena ere jasan behar izaten dute "beltzak putak dira" estereotipoarekin justifikatuta.

"Lanetako batean, gizona batekin aspertuta nengoen, jazarri eta ukitu egiten ninduen beti, eta nik jasan egin behar nuen beste diru sarrerarik ez nuelako".

"Orain haur bat zaintzen dut, baina lehen adineko gizon bat zaintzen nuen. Hemen esaten duzuen bezala «berdekerian» ibiltzen zen eta gauza asko jasan behar izan nituen..."

"Etengabe burlatzen dira nitaz, beltza edo puta esaten didate..."

"Zaintzen dudak gizonak oso gaizki tratatzen nau, nik ezin dut horrelako bat maite..."

"Etxea nola garbitzen nuen ikusteko proba bat egin nahi zidala esan zidan, baina iritsi nintzenean nitaz aprobetxatu nahi izan zen. Korrika irten nintzen eta ezer kobratu gabe".

"Kalean ere iraintzen gaituzte... haurdun nengoela gizon batek sexua atzetik izateagatik ordainduko zidala esan zidan... nik senarra nuela besterik ezin izan nion esan eta berak hori ez zela arazoa, senarrari ezer ere ez esateko".

Sexu gehiegikeriez gain, aurreiritzi gehiago dago, auzo arriskutsuetan eta aldirietan bizi dira, bazterkeria, delinkuentzia, droga eta prostituzio askoko tokietan, ondorioz eurak ere susmagarriak dira izan ditzaketan enplegatzaile urrientzat eta bizilekuari buruz gezurra esaten dute.

"Zein auzotan bizi naizen esaten badiet euren etxeetara lapurtzera noala edo antzeko zerbait pentsatzen dute... beltza naizelako etxean zerbait falta izanagatik ni akusatu naute eta hori oso itsusia da..."

Arrazakeria egoten da kontratatzerako orduan eta laneko harremana ezarritakoan ere bai. Marokoko enplegatuen kasuan erlijioa eta kultura (buruko zapia) direla eta, lanerako aukerak murriztu egiten zaizkie.

"Zapiaren gaia zaila da. Nik zapirik gabe egiten dut lana, baina beste batzuei esan omen diete kentzen ez badute ez dutela lanik izango."

Afrikar emakume etorkinek euren lana baloratzen dute eta beste edozein lan bezain duina dela sentitzen dute. Askotan egungo lana eta euren jatorrizko etxeetan

zutena alderatzen dute eta umiliazioak umiliazio Euskadin egoteak pena merezi duela esaten dute. Lana bizirauteko eta euren familiei laguntzeko den arren, egiten duten ahaleginak izaten duen balorazio txikiak mindu egiten ditu. Etxeko lanik txarrenak eurentzat izaten direla badakite.

"Gustura nago familiarekin, haurrak zaintzen ditut, baina azkeneko aldiz oporretara joan zirenean, nik ere oporrak nituen berez, baina eurekin joaten ez banintzen itzultzen nintzenean lanik ez nuela izango esan zidaten eta onartu egin behar izan nuen..."

Informatzaile guztiek antzeman dute euren egoera aldatu egin dela egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, baina talde honetako emakumeak dira krisi honetako talderik zaugarriena. Lehendik ere laneko baldintzarik txarrenak zituzten eta orain are txarragoak dituzte. Gainera, atzeritarrak bertako pertsoneri lana kentzera edo gizarte laguntzen gain bizitzera etortzen diren aurreiritzia jasan behar izaten dute.

Egia da Marokoko emakumeek latinoamerikarrek baino presio txikiagoa dutela bidalketak egiteko eta horri esker, apur bat hobeto ari dira krisia jasaten. Dirua bidaltzeari uzten badiote, ia ondoriorik ez da egongo euren familietan, etxeko ekonomiaren kargu etxeko gizona egiten baita.

Antzeko zerbait gertatzen zaie gainerako afrikar informatzaileei ere, horietako batzuek proiektu ekonomikoagatik emigratu zuten arren, euren herrialdeetako bizi-baldintza itogarrietatik ihes egiteko ere emigratu zuten. Estereotipoak maila akademiko baxuagoarekin edo alfabetatu gabeekin lotzen dituen arren, Saharaz azpiko informatzaile batzuek heziketa maila altua dute, nahiz eta etekinik ez atera.

Hizkuntzak ikasteko erraztasuna dute, latinoamerikarrek ez bezala, eta horren bidez beste europar herrialde batzuetara joan daitezke eta arrazakeriaren ondoriozko bazterkeria egoera handiagoak jasan behar dituzten arren, lan baldintza gogorrei aurre egiteko gaitasuna ere handiagoa izaten dute; horrek ez du esan nahi baldintza horien aurka altxatzen ez direnik, baina egia da etorkizunari begira fatalismoa sumatzen dela.

"Nik ingeniarietza amaitu nuen, baina hemen etxeko lanak besterik ezin ditut egin..."

4. ONDORIOAK

Genealogia sortzea emakumeen ikusezintasuna gainditzeko historia sortzea da. Genealogiak aitortu egiten du emakumeen kausak beti ez duela zerotik hasi behar, badirela beste batzuk (izenek jartzerik ez dugun arren, asko egon ere), gizonetikiko mendeko egoera eta baldintzetan kokatzen gaituzten sistema patriarkala ukitu dutenak. Emakumeen genealogia sortzea aurpegia eman eta gure aurreko emakumeak berreskuratzea da. Egiten ez badugu, memoriarik eta historiarik gabe geratuko gara.

Genealogia hau sortzeko emakume, etorkin eta etxe-langile mailak hartu dira. Zapalketen alorrartekotasuna oinarrizko ezaugarria da, azken berrogei urteetan egin den zaintza lanaren esperientzia igorri ahal izateko.

Zenbait nazionalitateetako hogeita bost emakumeren ahozko historia jaso dugu, euren esperientziak ere desberdinak ziren, baina bizitzaren zati handi batean zaintza lanak egin dituzte ordainduta; horiek guztiak hartu eta lan horrek emakumeontzat duen esanahia eta baldintzak berreskuratu ditugu, baita beste emakumeei horren berri nola ematen dieten ere. Hau da, belaunaldi barneko eta arteko igorpena sortzen saiatu gara, genealogia egiten.

Hamarkada hauetan milaka emakumek bizitza mantendu dute zentzu zabalean hartutako zaintza lanarekin, nekez zehaztu daiteke lan hori eta hamaika zeregin egin dituzte. Lan horri bizi-esfortzuaren maila kendu diote, lanaren banaketa sexuarekin emakumeen betebeharrekin uztartu baita, naturalizatu eginda «euren zereginekin» identifikatu delako. Eta emakumeen lanak direlako, «etxeko andre» titulua duenak lan horiek egin ezin dituenen edo nahi ez dituenen, beti aurkituko du lan horien kargu egingo den beste emakumeren bat.

Zaintzaileen lanean nabarmentzen den lehenengo ezaugarrietakoa malgutasuna eta anbiguetatea da, zer sartzen da maila honetan? Lan honetako informatzaileek adierazi dutenez, euren kontratazioan hitzartutakoak baino zeregin gehiago sartzen dira, egin beharreko lanei buruz inoiz inolako hitzarmenik egiten bada behintzat. Zaintzaileak zaintzen dituztenen bizitzako, eta zenbaitetan heriotzako, kudeaketen kargu egin dira azkenean. Malgutasun hau emakumeak direlako gertatzen da eta zaintzeko lanari merkatuko balioa kendu zaiolako, egiten duenaren ekintza maitagarri bat dela uste izan delako.

Jarduerak balioa galduta, zaila da zaintza lanetan aritzen diren emakumeek euren buruak pertsona bezala baloratzea. Informatzaileak saiatzen dira eta behin eta berriro adierazten dute euren lana zein garrantzitsua den. Eta arrazoi osoa dute. Hala ere, badakite euren buruei euren lana aitortzen dieten arren gizarteak ez diela aitortzen eta enplegatzaileek ere ez, devaluazio honi esker gutxiago ordaindu behar baitute.

Emakume pobre askok ekonomikoki hobetzeko aukera barrak dute: euren etxeetan zaintza lanak egiteaz gain, besteren etxeetan ere pertsonak zaintzea. Euskal gizarteko zaintzaileek antzeko baldintza ekonomikoak dituzte eta gehienak etorkinak dira, hau da, beste toki batzuetatik etorritako emakumeak dira.

Zaintzaileen genealogiak adierazten digunez, baldintza hau zaintzen duten emakumeen erauzketa ekonomikoaren gaineratik egon da, baita euren kualifikazio ekonomikoaren gaineratik ere. Lana egiten zuten etxean bizi ziren lehenengo emakume migranteek emakume pobreen eta trebakuntza akademiko txikikoaren profila zuten arren, zaintzaileen bigarren saldoak, filipinarrenak, patro hori apurtu egin zuen. Geroago, latinoamerikar, errumaniar eta afrikar migrazioak beste talde bat eratu zuen; gain kualifikatuta dauden lan bat egiten dute, oro har, baina egin beharra daukate herrialde hartzailearen egitura ekonomikoak oso mugatzen baitu beste sektoreetan lanean hastea.

Zaintzaileen migrazio desberdinen ibilbidea egitean, batzuen eta besteen artean harremanik ez dagoela ohartuko gara, aitzitik, nolabaiteko lehia dagoela dirudi iritsi berriak baldintza txarragoetako lanpostuetan uzteko, horri esker, gainerakoek zaintzaileen eskalan gora egin baitezakete.

Zaintzaileen eskalako mailarik baxuenean lana egiten duten etxean bertan bizi direnak daude, hala bizi direnek besteek baino zaugarritasun maila handiagoa dute. Horrela daudenek are gehiago sufritzen dute zaintza lanaren malgutasuna eta mugarik eza, horrelakorik esan badaiteke behintzat. Kasu honetan kontua ez da zer egin behar den, baizik eta baita noiz egin behar den ere. Beti «eskura» egotearen ondorioz, zaintzaile hauek ezin dira lanetik deskonektatu eta adi egon behar dira etengabe. Bestalde, espazio propioa ez dutenez izaten, enplegatzailearen etxeko gela ez baita propioa izaten, eskubidedun subjektu gaitasunean ondorio larriak izaten ditu.

Etxe bakarrean lana egin eta beste toki batean bizi direnak daude hurrengo mailan, mendekotasun txikiagoa dute, "euren" tokian egin baitezakete lo eta lanetik fisikoki eta mentalki banatu. Etxeetan orduka zaintzea edota lana egitea hain segurua ez den arren eta desegonkortasun ekonomiko handiagoa eta zenbait enplegatzaileekin tratatu beharra dituen arren, urrats bat da emakumeentzat, izan ere, laneko erlazioak negoziatu egin daitezke eta zereginak mugatu, enpresa batetik egotearen gertuenekoa da.

Informatzaileek adierazten dutenez, oso garrantzitsua da mugatzea, ordaintzen den denbora horretan zer sartzen den eta zer ez den sartzen argi izatea, eta bere enplegatzaileak lisatzeko arropa asko jarri diolako hitzartutakoa baino ordu gehiago sartu beharrik ez izatea. Egiteari utzi eta joateko esaten dieten ahots haserreak edo etsiak saihestea oso zaila da gehienentzat.

Denboraren malgutasunaren ondorioz emakume zaintzaileek ia ez dute denbora librerik euren bizitzako beste alor batzuk zabaltzeko: Ikasi, atsedena hartu, gizarteratu, ezagutu... denbora librea oinarrizko baldintza da gizarteko sareak sortzeko eta babeserako, euren egoeraren zaugarritasuna errazago gainditzen baitute horrela.

Talde batzuek, filipinarrek esaterako, denbora ugari eraman arren, ia ez dute harremanik beste emakume etorkinekin. Bakartze hori azaltzen duten arrazoi objektiboak daude (hizkuntza, laneko erregimena, adibidez), baina zalantzarik gabe filipinarren aukera horretan elementu subjektiboak ere egongo dira. Beharbada, zaintzaileen eskalan eurak etxerik «hoberenetan» egotea.

Deigarria da, nahiz enplegatuen nahiz enplegatzaileen alorrean hain feminizatutako arlo honetan lankidetzara sare txikia egotea. Taldeak ekitea ez da aukera erraza. Honek ez du esan nahi elkartasunezko eta babeseko harremanik ezartzen ez denik, baita enplegua bata besteari igortzeko sareak ere, baina emakume zaintzaileek zailtasunak dituzte euren buruei beharrezko talde garrantzitsua direla eta horren ondorioz, biltzeko eta eskatzeko aukera dutela aitortzeko: lan baldintza hobek eskatzeko aukera, hasteko.

Zalantzarik ez dugu gutxi baloratutako jardueran aritzea dela gabezia honen zergatia, askok aldi baterako daudela esatearekin batera. Emakume etorkinekin euren jatorriko herrialdeetan daudenetik dakite etxe lanetan jarduteko aukerak dituztela batez ere, baina «hasieran» baldintza horietan migratzeko prest egoten

dira. Egoera hori aldi baterakoa izatea nahi dute denek, lehenengo urteetan baino ez egotea horrela, biziko diren gizarte berrira egokitu arte, hizkuntza ikasten duten arte, egoera administratiboa erregularizatzen duten arte...

Hori dela eta, batzuetan zaila zaie zaintza lanak egiten dituzten bezalako baldintza umiliagarrietan egitea eta batzuetan iraun egiten duten euren autobaloraziorako mingarria izan arren.

Informatzaileen bizi-esperientziak aztertuz gero, harreman konplexua ikus dezakegu banako eta taldeko jabekuntza prozesuetan.

Kontatutako historietan ikus daitekeenez, emakumeek euren jokaerak aldatu egin dituzte sartu diren errealitate berrira egokitzeko, genero erlazioei eta feminitate/maskulinitate estereotipoei buruz dituzten ideiak aldatu behar izan dituzten arren. Aldaketa hauek euren bizi baldintzak hobetzeko aukerak ebaluatzeko moduaren ondorioz ere egiten dira, eta egiten duten aldaketa bakoitzeko onartzeko prest dauden kostu bakoitzaren azterketaren ondorioz ere bai.

Idea eta sentimendu nahasiak izaten dituzte eta batzuetan kontraesanak ere bai, ohiko mezuak (emakumeak gizartean duen tokiaz, esaterako) eta jokaera apurtzaileak (bakarrik migratzera ausartu, esaterako) nahasten dira. Informatzaile guztiek izan dute kontraesanen bat, izan ere, askorentzat epe ertain eta luzera hobetzeak ez du konpentsatzen orainean jasan beharreko arazoak.

Baina gehienek aitortzen dute migratzeak konpentsatu egiten duela, zaintzaile lanak egiteko bada ere. Euren jatorrizko tokietan geratuz gero, mugak egongo ziren eurentzat; zentzu honetan, bildutako historia bakoitza banako jabekuntza historia da.

Askorentzat jabekuntza honen faktorerik garrantzitsuenak independentzia ekonomikoari lotuta dago, euren seme-alabak eta familiak mantentzeko dirua irabazteko gai ikusten dira eta hori baloraziorako faktore garrantzitsua da. Lan honen gaia izan ez arren, irabazten duten diruaren xedea erabakitzeko gaitasunean zailtasunak ere agertu ziren. Hurrengo gaietarako geratzen da bidalketena, horren esanahia eta emakume etorkinen jabekuntza prozesuan duen eragina.

Baina jabekuntza pertsonalerako prozesu aberasgarriak egon diren arren, inguruak ez dizkie emakume hauei talde bezala indartuko dituen irudi positiboak itzultzen. Zaintza lanaren gizarteko devaluazioa, lan hori egiteko baldintza txarrak, berarekin dituen umiliazioak, euskal emakumeek etorkinei mesedea egiten dien ustea... taldeko autoestimua osasuntsua eraikitzea eta horrekin identifikatzea mugatzen duten faktoreak dira.

Irudi honentzako ez da ona, halaber, zaintzak «emakumeen kontuak» izaten jarraitzeak ere. Euskal emakumeek oso zaila dela ikusi dute nahiz Estatuak nahiz gizonek oro har eta euren bikoteek bereziki familiako eta laneko bizitza uztartzeko zeregina euren gain hartzea eta ondorioz, eurek egin ezin dituzten zereginak beste emakume baten gain utzi dituzte.

Baina irtenbide honek ez ditu zaintzaileak aliatu bezala jartzen, baizik eta eurek jada egin nahi ez dutena egiten dutenak dira eta soziala baino banakoa den irtenbide hau beste aukerarik ez dutela gogorarazten diete.

Hori dela eta, jabekuntza pertsonal historiak ditugu, ez dugu taldeko jabekuntza prozesuen adierazlerik aurkitu, jabekuntza pertsonaleko historiek euren buruei eutsi eta hedatuko diren bermerik.

Ondorioz, oso zaila da genealogia sortzea ere, hau da, beste emakumeei lorpenen, erresistentzien eta aurrerapenen berri ematea, eta are zailagoa da datozen belaunaldiek esperientzia hauek nola aprobeatzea ditzaketan pentsatzea.

Zaintza lana zein baldintzatan egiten den zaintzea, emakume guztiek gizarte baloraziorako premiazko beharra da. Hasierako zereginetako bat emakume etorkinen baldintzak hobetzea da. Beste baldintzetako bat, lehenengoa bezain premiazkoa, euskal gizartearen zaintza beharrak «kanpoko» emakumeek nola bete dituzten eta hori zein garrantzitsua izan den eta den errebindikatzea da.

1. ERANSKINA: ETXEKO LANARI BURUZKO LEGEDIAREN EBOLUZIOA

XX. mendearen hasierara arte etxe-langileen jarduera erabat mirabetzakoa zela uste zen; gero, laneko politikek etxe-langileak mirabetzatik aldentzen saiatu dira, laneko ohiko legedian beste lanekin parekatzen saiatu dira.

Etxe-langileen lan izaera 1931ko azaroaren 21eko Lan Kontratuen Legean aitortu zen lehenengoz.

Frankismoan gizarte xedapenak sortu ziren eta etxe-langileak gizarte hornikuntza sisteman sartu ziren, horien artean zegoen Etxe Langileen Montepio Nazioala, 1959an. Besteak beste, etxe-lanetan aritzen ziren pertsonen gizarte segurantzaren onurak emateaz gain, **“euren perfektionamendu moralari eta ordena guztietan aurrera egiteari”** ekarpena egingo zitzaion.

Baina 1985etik aurrera, etxe- lana lantzat hartu zen, izan ere aurrez “etxe-angileak” Kode Zibilean baino ez zeuden erregulatuta eta ezohikoa zenez, zaila zen laneko harreman orokor batekin parekatzea. Erregulazio hau nahikoa ez zen arren, etxe- lanen lan izaera aitortzeko lehenengo urratsa izan zen.

Langileen Estatutuko 2.1 b) artikuluan Etxeko Zerbitzukoak lan-harreman berezizat hartu ziren.

Langileen Estatutuko martxoaren 10eko 8/1980 Legeko artikulua jakin batzuen aldaketari buruzko abuztuaren 2ko 32/1984 Legeko lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Gobernuak, gehienez 12 hilabeteko epean, Langileen Estatutuan aurreikusitako lan-harreman berezien erregimen juridikoa arautu behar zen.

Eta horrela abuztuaren 1eko 1424/1985 Errege Dekretuaren berrespena iritsi zen (BOE-A-1985-17108).

Jasotzen zituen alderdietako batzuk hauek ziren:

- Astean 19 orduz lan egin zitekeen, kotizatu beharrik gabe. Behar hori 20 ordurekin hasten zen.
- Ez zen langabeziagatik segurua izateko eskubiderik (langabezia).
- Banako lanaren kontraturik ez zegoen.

- Ez zegoen laneko ikuskapenik.
- Prestazio pertsonala zenez, ez zen hitzarmen orokorrik sortu.
- Oro har, soldatei, ordutegiei, oporrei eta aparteko ordainsariei buruz hitzartutako baldintzak behin eta berriro uzten dira betegabe.

Laneko talde oso bati (etxeke lanak egiten zituztenei) oinarrizko eskubideak alde batera uzten zitzaizkien eta 1986an Bizkaiko Etxe Langileen Elkarteak sortu zen (ATH-ELE), **"...laneko baldintza duinak aitortuko dituen eta etxeke lana beste edozein lan bezala tratatuko duen legezko aldaketa eskatzeko"**.

Gabeziak izan arren, legedi honek 2011ra arte iraun zuen eta azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretuak aldatu zuen (BOE-A-2011-17975), 2012ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zenak.

Aurreko legediaren hobekuntza hauek zituen:

- Enplegatuak gizarte segurantzaren kotizatzearen betebeharrak.
- Lana egiten den lehenengo ordutik kotizatu beharra (aurrez aurre 20 ordu egin arte ez zegoen beharrik).
- Bi aldeek (enplegatuak eta enplegatuak) sinatutako laneko banako kontratua.
- Bidegabeko kaleratzeengatik kalte ordaina: lana egindako urte bakoitzeko 20 egun. Atzera egiteagatik -bidezko kaleratzeagatik- kalte ordaina: lana egindako urte bakoitzeko 12 egun.
- Urtean aparteko bi ordainsari oso, bi ordainsari erdiren orde.

Baina legedi berriak ez zituen errotik aldatu etxeke lanak egiteko baldintzak eta kritika hauek egin zaizkio, besteak beste:

- Etxe-langileen baldintzak eta erregimen orokorreko gainerako langileenak ez direla oraindik parekatu (erregimen berezia dago oraindik ere).
- Etxeko lanerako taldeko hitzarmen negoziaturik ez dago.
- Gehieneko lanaldia 40 ordukoa izango dela ere ez da mugatzen.
- Ez dira aparteko orduak aintzat hartzen.
- Ez da langabezia ordaintzeko eskubidea aitortu.
- Ez dago laneko ikuskapenik.
- Praktikan soldatei, ordutegiei, oporrei eta apartekoei lotutako alderdirik gehienak bete gabe geratzen dira.

Enplegatzaileak ez ziren oso gustura legedi honekin, etxeko langileak kontratatzea garestitu egin baitzitzaien.

2013 hasieran berriro aldatu da legedia eta zenbait murrizketa egon dira, ondorioz, atzerakada egon da aurrekoarekin alderatuz gero.

Abenduaren 28ko 29/2012 Errege Dekretu Legegilea argitaratu da BOEn (BOE-A-2012-15764) eta 1620/2011 Errege Dekretua aldatu egin du.

2013ko apiriletik hilean 60 ordu baino gutxiagoz egiten bada lana, langileak eman beharko du alta eta baita Gizarte Segurantzaren kotizatu ere.

Kuota osoa ordaintzearen arduraduna langilea izango da eta enplegatzailearen betebeharra soldataz gain kuota horretarako ekarpen patronala egitea izango da.

Langileak bere betebeharra beteko ez balu eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan zorra egingo balu, enplegatzaileak ez luke inolako erantzukizunik izango soldatarekin batera kuota patronala ordaintzen duela erakutsiz gero.

Horrelakorik ez balego, bigarren mailako erantzukizuna luke; Gizarte Segurantzako Diruzaintzak ez lioke ordaindu gabeko kuota patronalak ordaintzeko eskatuko, langilearen ondasunen gain zor guztia kitatu arte eta zorra kobratzeko adina ondasun ez balu langileak, orduan eskatuko zaio bere parte enplegatzaileari.

Erantzukizunen aldaketa honek gaur egun altan egon eta enplegatzaileen kontura 60 ordu baino gutxiago kotizatzen dutenengan ere eragina izango du.

Kotizatzeke oinarriak aldatu egin dira, baina sistema orokorretik aldedun egin dira:

- Gutxieneke oinarria 90,20 eurotik 147,86 eurora igo da (ordu gutxiko lanetan, oinarria egiaz jasotako soldata baino handiagoa izan daiteke).
- Gehieneko oinarria 748,20 eurotik 790,65 eurora igo da; baina 2018ra arte gutxieneke soldata igotzen denaren arabera baino ez da igoko.

Merkatuan lanordua 10 euro inguru ordaintzen den arren, araudiak orduko 5,05 finkatu du orduko.

EINek familiako aurrekontuei buruz 2009an egindako estatistikako datuen arabera (datu hau agertzen den estatistika bakarra), etxeko lanen kontratuen %78,28 asteko hamar ordu edo gutxiagokoak dira. Kontratuen %8,25 baino ez dira lanaldi osokoak.

ERREFERENTZIAK

- ANDERSON, Bridget. (2000). *Doing the dirty work? The global politics of domestic labour*. London, Zed Books
- AGUILAR IDAÑEZ, María José (2008). "*Servicio doméstico: discriminación y condiciones de trabajo en la externalización del cuidado, desde la perspectiva de género*". GEMIC (Universidad de Castilla – La Mancha) en <http://ve.umh.es/sieg.1/docs/ICongresoInternacional/comunicaciones/scv10.pdf>
- CARRIZO, Silvia (2012). "Mujeres inmigrantes en la CAR: ámbito laboral" en Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer. *Mujeres Inmigrantes Extranjeras en la CAE*. Vitoria-Gasteiz
- CATARINO, Christine y OSO CASAS, Laura (2000). "*La inmigración femenina en Madrid y Lisboa: hacia una etnización del servicio doméstico y de las empresas de limpieza*" Papers. 60, (183-207)
- HERNÁNDEZ PIÑERO, Aránzazu. (2010). "Igualdad, diferencia: genealogías feministas". Feminismo/s. N. 15 (jun. 2010)

BIBLIOGRAFIA

- AGUILAR IDAÑEZ, María José (2010). "«Las otras» cuidadoras: mujeres inmigrantes en el servicio doméstico y trasvases generalizados en el ámbito territorial del bienestar". Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social, no 17
- AGUILAR IDAÑEZ, María José, CRUZ SOUZA, Fátima y LOZANO SANCHEZ, Miguel (2010). *Mujeres inmigrantes en el servicio doméstico. Acceso al empleo y contratación. Problemática ocupacional y condiciones de vida*. Grupo Interdisciplinar de Estudios sobre Migraciones, Interculturalidad y Ciudadanía (GIEMIC) Universidad de Castilla-La Mancha
- BEL ADELL, Carmen y GOMEZ FAYREN, Josefa (2000). "Nueva Inmigración Africana En La Región De Murcia: Inmigrantes Subsaharianos". Consejo económico y social de la Región de Murcia. Colección Estudios número 9. Murcia 299
- BLANCO, Cristina (2004). "La inmigración marroquí en el País Vasco" en *Atlas de inmigración Marroquí en España*. Taller de Estudios internacionales Mediterráneos
- CARRIZO, Silvia (2007). *Manos que mueven el mundo*. http://www.bizkeliza.org/fileadmin/bizkeliza/web/doc_car/Manos_que_Mueven_el_Mundo_Silvia_Carrizo-1.pdf
- CASTELLO SANTAMARIA, Laia (2008). "*La mercantilización y mundialización del trabajo reproductivo. El caso español*." Centro de Estudios Sociológicos sobre la Vida Cotidiana y el Trabajo. Departamento de Sociología. Universidad Autónoma de Barcelona
- Colectivo Ioé (2001). *Mujer, inmigración y trabajo*. Madrid. IMSERSO
- , (2003) "Sociedad española y la inmigración extranjera" Papeles de economía española Nº 98

- DAGUERRE GARCÍA, Agustina (2010). *La feminización de las migraciones en Filipinas: cuerpos domésticos, activistas políticas*. Relaciones internacionales, número 13
- GARCÍA PAZ, María Florencia (2009). "Empleo doméstico, género e inmigración". Departamento de Sociología. Universidad del País vasco. III Congreso de Economía Feminista. Baeza
- GARAY SALAMANCA, Luis Jorge y MEDINA VILLEGAS, María Claudia (2009). *La migración colombiana a España. El capítulo más reciente de una historia compartida*. Ministerio de Trabajo e Inmigración. Secretaría de Estado de Inmigración y Emigración
- GREGORIO GIL, Carmen (1992). *Mujeres inmigrantes de América Latina y África: su doble discriminación*. Cuadernos África América Latina nº 9
- HERRERA, Gioconda (2005). *Mujeres ecuatorianas en las cadenas globales del cuidado*. Quito, FLACSO, Sede Ecuador
- IZQUIERDO BENITO, María Jesús, CAÑELES, Noemí, GUTIERREZ-OTERO MORA, Anabel, (2008). *Servidoras sin fronteras. Migración filipina y redes de cuidado*. Grupo de Estudios sobre Sentimientos, Emociones y Sociedad (GESSES). Universitat Autònoma de Barcelona
- JABARDO VELASCO, Mercedes (2005). "Migraciones y género. Cuando el continente africano se hace pequeño" en Revista española de desarrollo y cooperación, Nº 16
- , (2008). "Desde el feminismo negro, una mirada al género y la inmigración" en Feminismos en la antropología: Nuevas propuestas críticas, número 6
- LOSADA CAMPO, Teresa (1993). "La mujer inmigrante marroquí en España" Ponencia en el Congreso Mujeres, democracia y desarrollo en el Magreb. Fundación Pablo Iglesias, Madrid, 23-25 de septiembre de 1993
- MARCU, Silvia (2009). "Inmigrantes rumanas en el servicio doméstico y de cuidados de la Comunidad de Madrid: Estudio cualitativo". Estudios Geográficos. Vol. LXX, 267
- MARTÍNEZ BUJAN, Raquel (2011). "Entre el familismo, la profesionalización y la privatización. Las variaciones regionales del sistema de cuidados de larga duración en España." Ponencia en el III Congreso de la REPS. Pamplona 24-26 Nov
- MUNEBAR, Dora Inés y MAGUEMATI, Wagbou (2000). "Mujeres africanas en Madrid: vidas y experiencias". Revista: Mugak
- OTXOA, Isabel. "El PP Fulmina los avances en el trabajo del hogar". Diario diagonal global. <http://www.diagonalperiodico.net/global/pp-fulmina-avances-trabajo-del-hogar.html-0>
- PAIEWOSKY, Denise (2007). *Feminización de la migración. Género, Remesas y Desarrollo*. Cuaderno de Trabajo Número 1. United Nations. INSTRAW en <http://www.un-instraw.org/es/publicaciones/working-papers//index.php>
- PAJARES ALONSO, Miguel (2007). *Inmigrantes del Este. Procesos migratorios de los rumanos*. Ed. Barcelona, Icaria, Colección Antrazyt
- PATINO ALONSO, María Carmen y VICENTE GALINDO, María Purificación (2011). *Perfil multivariante de las mujeres empleadas en el Servicio Doméstico*. Cuadernos de Relaciones Laborales Vol. 29, Núm. 2

- PÉREZ OROZCO, Amaia y LÓPEZ GIL, Silvia (2011). *Desigualdades a flor de piel: Cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y políticas públicas*. United Nations
- RIBAS MATEO, Natalia (2005) "La feminización de las migraciones desde una perspectiva filipina". Revista CIDOB d'Afers Internacionals, número 68
- ROCA I GIRONA, Jordi. (2005). *Los (no) lugares de las mujeres durante el franquismo: el trabajo femenino en el ámbito público y privado*. Pamplona-Iruña: Instituto Gerónimo de Uztariz, No. 21.
- ROMERO, Eduardo (2010). "Apuntes para una mirada feminista sobre la inmigración" Revista La madeja.
- VICENTE TORRADO, Trinidad (2005). "La inmigración latinoamericana en España". UN/POP/EGM-MIG/2005/12.

Ikerketa egitea
eta txostena osatzea
Sortzen eta Mujeres con Voz

Sortzen 
consultoría s.l.

*Mujeres
con Voz*

Diseinua eta maketazioa
Poison Estudio

 **poisonestudio.com**

Emakunde, Fonde de Mujeres Calala eta Getxoko Udalaren laguntzarekin



EUSKARA BIZI



Getxo

bizi ezazu

calala

Fondo de Mujeres



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco